



11

LANBIDE HEZIKETARAKO Materialak

**KOMUNITATE-
-GARAPENA**

Euskara Zerbitzua
Ikasmaterialak

Toribio Etxebarria
Lanbide Heziketarako Materialak

11

Komunitate-garapena

Itziar Silloniz Ozamiz

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003

SILLONIZ OZAMIZ, Itziar

Komunitate-garapena / Itziar Silloniz Ozamiz. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Juarlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003

or. ; cm. – (Toribio Etxebarria. Lanbide Heziketarako Materialak ; 11)

ISBN 84-457-2073-2

1. Gizarte-garapena. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

II. Izenburua. III. Bilduma.

364.46

ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

1. Prototipo elektronikoen garapena eta eraikuntza
2. Finantza kudeaketa
3. Giza baliabideak
4. Kultur animazioa
5. Analisi kimiko eta tresna bidezkoa
6. Laborategiko antolaketa eta kudeaketa
7. Farmazia- eta parafarmazia-produktuen prestaketa
8. Esku-hartze komunitarioen metodología
9. Taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak
10. Biltegiratze-lanak
11. Komunitate-garapena

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2003-10-01)

Argitaraldia: 1.a, 2003ko abendua

Ale-kopurua: 600

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Itziar Silloniz Ozamiz

Azala: Jesus Iturriza

Fotokonposaketa: Eusko Printing Service, S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

I.S.B.N.: 84-457-2073-2

L.G.: VI-553/03

ESKER ONAK

Apunte hauek egin ahal izan baditut, jende askoren laguntzari esker izan da. Horra hor, adibidez, Jose Llerandi, euskara-zuzentzaile eta neure entzulea; Patxi Sanz, ni bezain galduta ibili den irakasle saiatua; informazioa emateko prest egon diren guztiak; elkarrizketa egiteko arazorik izan ez duten Ane Etxebarria eta Ainhoa Subinas; eta “last but not least” Josu Errasti, ordenadorearen eta nire arteko harremanen zuzentzaile nekazina. Ondo egin badut, zuoi esker izan da. Txarto egin badut, ordea, ez ezer esan, mesedez.

HASIERAKO EBALUAZIOA

Non bizi zara?

Inoiz aritu al zara boluntario edo monitore lanean?

Horrela bada, non?

Zer egiten zenuen/duzu?

Eman zeure herriko elkarte, fundazio, GKE (ONG)... biren izena:

Zer uste duzu dela Komunitate Garapena? Eman hiru ideia:

Zein kontzepturekin lotuko zenuke? Aipa kontzeptu bi:

Izena:

AURKIBIDEA

0. SARRERA: LAN HONEN NONDIK NORAKOA.....	11
1. KOMUNITATE-GARAPENAREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK .	15
1.1. Garapen kontzeptua	17
1.2. Komunitate kontzeptua. Zergatik “Komunitate” Garapena eta ez “Sozietate” Garapena?	19
1.3. Sozietate- eta Kultur Animazioa eta Komunitate-Garapena.....	21
1.4. Zelan egiten den lan komunitate-zerbitzuetan. Metodologia.....	24
1.5. Plan, programa, egitasmo.....	27
1.6. Bibliografia	28
2. EKIPAMENDUAK	29
2.1. Zer dira?.....	31
2.2. Ezaugarriak	31
2.3. Tipologia.....	31
2.4. Fitxak	32
2.5. Bibliografia	35
3. KOMUNITATEAREN INGURUMENA ETA BEHARRAK: ERREALITATEAREN ANALISIA	37
3.1. Errealitatearen analisisa.....	39
3.2. Bibliografia	42
4. MUGIMENDU SOZIALAK ETA SOZIJETATE ZIBILAREN GARAPENA. DEFINIZIOAK.....	43
4.1. Psikologia sozialaren kontzeptu batzuk.....	45
4.2. Ongizatearen Estatua	49
4.3. Industria-sozietatea eta honen ostekoa	53
4.4. Sozietate Zibila edo hirugarren sektorea	55
4.5. Mugimendu sozialak.....	63
4.6. Bibliografia	65
5. LEGEEN ESPARRUA	67
5.1. Zer da legea? Lege motak	69
5.2. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	70
5.3. Espainiako Konstituzioa	75
5.4. Gizarte Zerbitzuen Legea.....	79
5.5. Boluntarioei buruzko Legea.....	82
6. GAUR EGUNEKO EGOERA	89
6.1. Gaur eguneko egoera: elkarrizketa Ane Etxebarria eta Ainhoa Subinas-ekin	91
6.2. Bibliografia	93

*Sarrera: lan honen
nondik norakoak*

O

Hasteko, esan dezadan ez naizela gai honetan aditua; ezertan jantzita egotekotan Historian dela esan beharko dut, ikasketa horiek egin ditut eta. Baina, hori horrela bada, zelan ausart naiteke gai honen gainean apunte batzuk egiten? Bada, batetik, etsipenak bultzatuta, urte biz egon bainaiz eskolak ematen esparru ezezagun eta labainkor honetan, hutsetik hasita, testuliburu bariarik... eta, gainera, euskaraz! Eta epe horretan antzerako egoeran ikusi ditut modulu honetako beste irakasleak ere. Bestalde, aitortu behar dut R400 ikastaroa egiteko izena eman nuenean, burutik pasatu ere ez zitzaidala egin letra txikia irakurtzeko ideia. Eta begira orain.

Arrazoi horiek ulergarri egingo dizkizute kontzeptuen sakontze urria eta egon daitezkeen “huts teknikoak”. Izan zaitezte borondate onekoak eta kontuan har ezazue nire asmoa ez dela izan testu-liburu bat idaztea, gaiaren zati baten gaineko apunte batzuk egitea baino, oinarrikoak eta erabilgarriak, ahal izan dudak ariketa gehien sartuta. Helburu hau betetzen badut, zuhaitza landatzea baino ez zait geratuko, 90 urterekin edo egingo dudana. Ez espero larregirik eta ez dizuet kale egingo.

*Komunitate-garapenaren
definizioa eta ezaugarri
nagusiak*

1

AURKIBIDEA

1. KOMUNITATE-GARAPENAREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK	15
1.1. Garapen kontzeptua	17
1.1.1. Eranskina: kontzeptu mapak	18
1.1.1.1. Garapenaren lehenengo eredia	18
1.1.1.2. Garapenaren bigarren eredia	19
1.2. Komunitate kontzeptua. Zergatik “Komunitate” Garapena eta ez “Sozietate” Garapena? ..	19
1.3. Sozietate- eta Kultur Animazioa eta Komunitate-Garapena.....	21
1.3.1. Sozietate- eta Kultur Animazioa: definizioak, historia apur bat, Garapenarekiko lotura.....	21
1.3.2. Komunitate-Garapena: historia	23
1.4. Zelan egiten den lan komunitate-zerbitzuetan. Metodologia	24
1.5. Plan, programa, egitasmo	27
1.6. Bibliografia.....	28

1.1. GARAPEN KONTZEPTUA

Ariketa: ezertan hasi aurretik ondoko ariketa hau egingo dugu. Egin itzazu marrazki bi –idazteak ez du balio–; saia zaitez batean hazkunde kontzeptua islatzen, bestean, berriz, garapena. Bost minutuko epea daukazu. Amaitzen duzunean, itsats itzazu irudiak horman, zeure ikaskideen marrazkiekin batera. Gero, bakoitzak minutu pare bat izango du beste ikaskide baten irudiaz berba egiteko, hor ikusten duena denei azaldu arte.

Ariketaren aldakiak: jarduera hau baliagarri gerta daiteke *kultura, demokrazia kulturala edo kulturaren demokratizazioa* kontzeptuak lantzeko ere. Taldeak kontzeptuaren (edo kontzeptuen) definizio orokorra egingo du denek ekarpenak batuta.

Behin lehenengo fasea amaituta, ikus dezagun garapenaren gainean dagoen definizioen multzoa.

Klaudio Harluxet Fundazioak (1995) argitaratutako Euskal Hiztegi Entziklopedikoan haxe esaten da:

Garapen. *iz.* 1. Garatzeko ekintza eta horren ondorioa. 2. EKON. Ekonomia jakin baten eta bere funtzionamenduaren hobekuntza kualitatibo eta egonkorra (industrializazioa, errenta nazionalaren maila, inbertsioak etab.). *Garapen-bidean dagoen herria.*

Gara(tu) 2. da/du *ad.* Hazi; bereziki, gaitasuna edo jardunbide bat hazi edo hazarazi. *Bost arrantzaletatik jator zeuden, gizon eginak, garatuak. Eskualdeko industria garatzeko.* 3. da/du *ad.* Zerbait edo norbait gero eta perfekzio edo konplexutasun maila handiagoa duten egoeren segidatik igaro edo igaroarazi.

Ikus daitekeenez, kontzeptua hazkuntza kualitatiboarekin dago lotuta, ez kuantitatiboarekin; hau da, etsenplu bat ipintzearen : pertsona bat ez da garatzen gauza askoren jabe izatea lortzen duenean, hobeto sentitzen denean baizik.

Garapena = Bizitza-kalitatearen hobekuntza

Bestetik, bistakoa da ezin dela bizi-maila jasorik izan gutxieneko baldintza materialak (etxe-bizitza, lana, janaria, hezkuntza, osasuna...) betetzen ez baldin badira. Hau dela eta, ez da harritzekoa, egiten den *garapen* eta *garapen ekonomiko* kontzeptuon identifikazioa.

Baina historia apur bat eginez gero, kontuan izan behar litzateke, Ander-Egg Animazioaren teorikoak esaten duenez, *garapen/azpigarapen* dialektika XVIII. mendearen erdialdean sortu zela, kapitalismoaren eta Industri Iraultzaren hastapenekin eta lurraldeen ekonomien isolamenduaren amaierarekin batera; hau da, ordura arte lurralde batzuk besteak baino aurreratuago edo atzeratuago izanik ere, euren ekonomiak hain estuki lotuta ez zeudenez, egoera ekonomikoak ez zuen elkarreragin handirik.

Fenomeno honen ikerketaren aitzindaria John M. Keynes izan zen (*Bakearen ondorio ekonomikoak, 1919, Enplegu, interes eta diruari buruzko teoria orokorra, 1936*). Baina XX. mendeko laugarren hamarkadaren amaierara arte, II. Mundu Gerra amaitu arte, alegia, gai hori ez zen lehen mailako arduraren bihurtu, orduan Nazio Batuen erakundean eztabaidatzen hasi baitzen. Horren ondorioz harrezkero gaiaren inguruko literatura piloa sortu da lurralde aberatsenetan,

baina irtenbide praktiko gutxi. Ander-Eggek dioenez, garapenaren arazo horrek ikertzaileei “garatzen” lagundu die, besterik ez.

60ko hamarkadan *garapen-azpigarapen* arazoa punta-puntakoa zen estatuetan eta zientzia sozialen esparruan. Nazio Batuek 1963an argitaratu zuten *Komunitatearen garapena eta garapen nazionala* izeneko dokumentuan azaltzen zen komunitatearen garapenak garapen nazionalari nola lagun ziezaiokeen, beti ere ikuspegi ekonomikotik hartuta.

70eko hamarkadan, mundu mailako krisi ekonomikoa zela eta (Petrolioaren Krisia), kontzeptua aldatzen hasi zen: aditu asko konturatu zen hazkunde ekonomikoa soila bultzatuz, hau da, gizakien egoera hobetzeko asmorik gabe, etekin handiagoak lortzea baino besterik helburu ez izanda, desoreka eta desberdintasunak areagotu eta ingurumena zeharo hondatu egiten zirela. Hausnarketa sakon honetatik kontzeptu berri bat sortu zen: **osoko garapena**, hots, bere baitan kultur demokrazia eta kulturaren demokratizazioa batzen dituen garapen kulturala, ekonomikoa, psikikoa eta fisikoa (ikus kontzeptu-mapa biak).


Gaur egun garapen mota hori **sostengagarritasunarekin** lotuta dago, Munduko Ingurumen eta Garapenaren Batzordearen proposamenean eta Hammarskjöld txostenean agertzen den moduan.

Hauexek dira garapen horren ezaugarriak:


- Baliabideen banaketa bidezkoagoa egiten du giza talde guztien, pobre zein aberats, andre zein gizon, zuri zein beltzen artean.
- Pertsonen osasuna, hezkuntza eta gaitasunak bultzatzen ditu.
- Análisi batetik sortzen da, premiak asetzea du helburu: planifikazioa
- Gobernuak ez du zuzentzen, hiritarrek baino: deszentralizazioa.
- Ekologiari dagokionez, fidagarria da.

1.1.1. Eranskina: kontzeptu-mapak

1.1.1.1. *Garapenaren lehenengo eredua*



1.1.1.2. Garapenaren bigarren eredua



1.2. KOMUNITATE KONTZEPTUA. ZERGATIK “KOMUNITATE” GARAPENA ETA EZ “SOZIESTATE” GARAPENA?

Ariketa: lehenik eta behin, ariketa hau egingo dugu: hiru edo lau laguneko taldetan antolatuta, irakur Elhuyar/Elkarlanean-ek argitaratutako *Euskal hiztegi modernoa 2000n* datozen definizioak:

Komunitate. *Iz. 1.* Interes eta ezaugarri komunak dituen giza taldea; leku jakin baten biztanleen multzoa. *2.* Helburu eta arau konkretu batzuen mende elkarrekin bizi diren pertsonen taldea.

Sozietate. *Iz. 1.* Gizon-emakumeak, oro har, elkarrekin eta harremanetan bizi izatearen aldetik begiratuta eratzen duten eratze edo sistema; lege eta erakunde beren azpian bizi den gizaki- edo herri-multzo iraunkorra. *Euskarak familian eta sozietatean duen egoera. Sozietate kapitalista.*

Orain aldera itzazue kontzeptuok, itaun hauei erantzunez:

- Zein da pertsonarengandik hurren dagoena? Zein da formalena? Zergatik?
- Zein dira komunitatearen ezaugarriak? Eta sozietatearenak? Eman bion etsenplu bana.

Ikus dezagun adituek gai honen gainean diotena:

Ferdinand Tönnies soziologo alemaniarrek egin zuen tipologiaren arabera, komunitatea, ki-deen lotura afektiboak eta talde bizipenak kokatzen diren *talde sekundarioa* da. Sozietatea, or-

dea, lehian eta hitzarmen harremanetan dago oinarrituta, hau da, kontratu sozialean (Elkartea eta Sozietatea, 1887)

J. M. Quintanak, bestetik, azaltzen digu pertsonok identitate bat baino gehiago dugula eta identitate soziala, nortasuna osotzen duena, komunitateak ematen digula eta horrela, segurtasuna ere eskaintzen digu. Banakoen bizitza, hortaz, komunitatearenari hertsiki lotuta dago. Zenbat eta komunitatearen egoera hobea izan, kalitate handiagokoa izan ohi da banakoen bizitza.

Horren aurrean, autoreak sozietatearen ideia ipintzen du: ideia hotz, inpersonal eta arrazoizkoa:

Adibidea: metropoli mailan, Mexiko Hirian adibidez, munduko hiribururik handiena berau, auzo bat komunitate izan daiteke eta metropoli osoa, aldiz, sozietate.

Ariketa: zein definizio aukeratu zenuke zuk? Eman arrazoiak.

Bestetik, hauexek izan daitezke komunitatearen ezaugarriak:

- Lur eremu jakin eta mugatu batean dago.
- Jende multzo batek osatzen du.
 - Pertsonen artean elkarreraginak eta bizipen komunak daude (erreferente historikoak, kultura...).
 - Komunitateko kideen artean badago taldeko izatearen sentimendua.
 - Etorkizunari begira proiektu eta helburu komunak dituzte.

Ariketa: goiko ezaugarriak ikusita, eman itzazu komunitatearen hiru adibide.

Nolakoak diren aztertuz gero, komunitateak hainbat motatakoak izan daitezkeela ikusten da:

- Odolezkoak primitiboak eta berezkoak dira; jatorri biologikoa dute (familia zabala, klana, leinua).
- Auzokoak, oinarritzkoak baserri zein hiri giroan.
- Ideologikoak, adiskidetasunean, elkartasunean eta sentimenduen parekotasunean oinarrituta (komunitate erlijiosoak, kasu).
- Hiriko taldeak edo tribuak, portaerak eta jarrerak markatuta, kanpora oso irudi berezia erakusten dute (koadrilak).
- Zenbait erakunde sozial, komunitate modura bizi direnak (eskolak, barnetegiak, ospitaleak).

Ariketa: jar itzazu mota bakoitzeko adibide bi.

Azkenik, komunitatearen funtzioak ikusiko ditugu:

- Sozializazioa gauzatzea, ezagutzak, jokabideak eta balioak igorritz.
- Kontrol soziala betetzen du, arau sozialak bereganatzen lagunduz.
- Jendearen parte-hartzea bideratzen du erakunde eta elkarten bidez.
- Laguntza ematen die pertsoneri.

Ariketa: eman ezazu funtzio bakoitza ulertzeko adibide bat, komunitate zehatz bat aukeratuta.

Bukatzeko, azpimarratu eta gomutarazi behar da *komunitatearen bitartez bideratzen dela jendearen parte-hartze soziala*; hori dela eta, *esku-hartzea ere komunitate mailan egin behar da*.

1.3. SOZIETATE- ETA KULTUR ANIMAZIOA ETA KOMUNITATE-GARAPENA

1.3.1. Sozietate- eta kultur animazioa: definizioak, historia apur bat, Garapenarekiko loturak

Ariketa: ezertan hasi aurretik, ondoko ariketa hau egingo dugu: laukia osotu:

AUTOREA	DEFINIZIOA	EZAUGARRIAK
HERNÁNDEZ, A.	“GKA ¹ kultura tresnatzat erabiltzea da sozietate jokabide aktiboagoak sortzeko, besteak beste, protagonismoak.”	Kultura tresna gisa; sozietate jokabideak bultzatu
UNESCO	“GKA komunitateek euren garapenean eta sartuta dauden bizitza soziopolitikoaren dinamika orokorrean parte-hartzeko eta ekimena suspertzeko egiten diren praktika sozialen multzoa da.”	
VENTOSA, V.	“Metodologia aktiboaren, sortzailearen eta parte-hartzailearen bitartez banako zein taldeko prozesu autoeratzailer sozialak, kulturalak eta hezitzaileak garatzeko esku-hartze eredia da.”	
CEMBRANOS, F. MONTESINOS, D. BUSTELO, M.	“GKA kulturaren, pertsonen antolaketaren, egitasmoen eta ekimenen eta sozietate garapenaren arloan erabiltzen den esku-hartze metodologia da.”	
PÉREZ SERRANO, G.	“GKAren zeregin nagusia instituzio zurrunduak dinamizatzea eta abiaraztea da, eta bai egitura eta pertsonen lozorroa baztertzen lagunduko duen dinamika berria sortzea ere.”	
DEL VALLE, A.	“GKA sozietate dinamismorik ez dagoen tokian berau sortzerantz doa, edo ekintza kulturala eta komunitarioa laguntzerantz, bere jarduerak sozietatea aldatzera bideratuz”.	
VILCHÉ, MARIO	“Animazioa giza taldeen baitan agertzen den prozesua da. Hauek, kideen parte-hartze aktiboa dela medio, kultura sortzeko gai izango dira.”	
HICTER, M.	“Animazioa helburu hau duen jarduera multzoa da: gizakiari inguru soziala, ekonomikoa, politikoa eta kulturala ulertzen eta bertan dauden arazoez, baliabideez eta irteera emateko borondateaz konturatzen laguntzea.”	
TRILLA BERNET, J.	“Komunitate batek talde, instituzio zein gizabanakoen aldetik, lurralde zehatz batean, kideek euren garapen sozialaren eta kulturaren prozesuan parte-hartze aktiboa izan dezaten jasotzen duen ekintza multzoa da.”	
ANDER-EGG, E.	“GKA sozietate esku-hartzeetako metodologia da, teknologia soziala, beraz. Gainera, politika kulturaren barruan dagoen ekintza forma bat ere bada.”	


(1) GKA= Sozietate- eta Kultur Animazioa.

Ariketa: laukia osotu eta gero, jar zaitezte hiruko edo lauko taldetan eta egin ezazue Sozietate eta Kultur Animazioaren definizioa. Azkenik, eztabaidatu talde handian definizio guztiak, arbelean edo idatzita daudela. Ez da bat aukeratu behar. Errepara iezaezue berdintasunei eta desberdintasunei: zertan zatozte denok bat? Zer gehi lekioko horri?.

Egin dezagun orain Animazioaren historia laburra; “Sozietate eta Kultur Animazioa” adierazpena 60ko hamarkadan hasi zen erabiltzen, lehenengoz Frantzia eta Belgikan, gero Espainian eta Europako beste herrialde batzuetan. Ingelesez ez dago “animazio” esaterik eta, horren ordez, “socio-cultural community development” esakunea erabiltzen da; hortik dator Gizarte eta Kultur Animazioaren eta Komunitate Garapenaren arteko nahastea.

Printzipioz *animatzea* euskaraz ez da adoretzea baino; hau da, bihotz hartu edo ematea hiztegiak dioen legez; aditz hori latineko *animare*-tik dator; hau da, “arimak (anima) gorputza bizitu; izaki biziduna bizkortu; norbaiti kemen morala eman; ekintza bat egiteko kitzikatu”; lo edo hilda zegoena bizitu, beraz. Autore batzuek uste dute, etimologia hau dela eta, egokiagoa litza-tekeela “dinamizazio” berba erabiltzea, honen abiapuntua aurretik dagoena bultzatzea eta suspertzea delako eta horixe da, hain zuzen ere, animatzailearen eginkizuna: talde baten kezka bideratzea eta taldeari arazo baten aurrean kontzientzia hartzen laguntzea.

Animazioa Komunitate Garapena lortzeko teknika eta metodologia bat da, pedagogia sozialaren esparruan sar daitekeena. Ikus irudia:



Animazioaz ez dugu besterik esango, zikloko beste modulu batzuetan jorratzen den gaia da eta.

1.3.2. Komunitate-Garapena: historia

Autore askok azpimarratzen dutenez, esate baterako Caridek eta Ander-Eggek, gizakia sortu zenetik izan dira elkarri lagundu eta babesa eskaintzeko sistemak; horretarako izan dira baliagarri, besteak beste, familia, klana, tribua, gremioa, kofradia, ermandadea, komunitate erlijiosoak, mutualitatea, sindikatua ... Baina berezko forma horiek desagertuz joan ziren industrializazioa ezarri zenetik, familiaren egituraren aldaketa, hiritartzea eta, beraz, deserrotzea zela eta. Jendeak estatuari begiratzen zion bere arazoak konpondu eta premiak asetzeko (Ongizatearen Estatu edo Estatu-Probidentzia) eta gobernuak *Komunitatearen Garapena* helburu zuten ekintza berezi batzuk sortzen hasi ziren. Horrela, deialde eta elkartasun sentimenduak bultzatuta egiten zena lanbide bihurtu zen, estatuaren burokraziaren menpekoa, eta askotan xede lotsagarria izango zuen lanbidea, hala nola, istilu sozialak baretzea –ez, alta, istilun zergatiak desagerraraztea- edo botoak eta itzala lortzea.

Dena den, gobernuak eta nazioarteko erakundeek, UNESCO kasu, saiakera horiek horrela (komunitate garapena) izendatuta ere, ez dira sartzen gaur egun Komunitate Garapenaren arloan, behetik gora antolatuta egon beharrean, goitik behera, hau da, agintari-adituetatik herrira, antolatuta daudelako.²

Gaur eguneko Komunitate-Garapena sozietatearen esku-hartzeko modua iturri bitatik sortuta dago:

- Batetik, EEBBetan sortu zen *komunitatearen antolaketa (community organization)*, lan sozialaren esparruan sortu zena 20ko hamarkadan batez ere hiri inguruetara bideratuta, eta zehaztu egin zena 1929ko krisiaren ondorioz, *new deal* deituriko estrategiaren barruan; lan mota hau 40ko hamarkadan sartu zen *social work*-ean eta 50 eta, batez ere, 60ko hamarkadetan *booma* izan zuen. Programen helburuak sozietate sektore txiroen integrazioa eta garapena, eta sistema demokratikoan parte hartzeko gaitasuna ematea dira; kontuan hartzekoak dira estatu honen populazioaren ezaugarriak: inmigrazio ugari jaso izana, arraza eta kultura aniztasuna...
- Bestetik, *komunitate garapena* dago, 50eko hamarkadako ekintza sozialeko programa bat Britainia Handiko *Colonial Office*ek egin kolonietako jendea independentziarako prestatzeko asmoz. Egiaz lortu nahi zena, ordea, independizatu berriek metropoliaren orbitan jarraitzea zen, haiengan “balio inperialak” txertatuz. Programa Indian eta Pakistanen zabaldu zen batez ere eta, gehien bat, nekazarien artean. Saioen bitartez txit egitasmo desberdinak jarri ziren martxan: obra eta azpiegiturei ekin zieten, nekazaritza erreformari, gune sareei, hezkuntza, dibulgazioari...; 1956an Nazio Batuetako adituen talde batek oinarritzko bihurtuko zen dokumentua egin zuen: *Komunitatearen garapena eta honi lotuta dauden zerbitzuak*; txosten horretan egiten zen Komunitate Garapenaren definizioa klasiko bilakatu zen, nahiz eta gaur egun gaudituta dagoen. Honako hau da: “Helburutzat gobernuaren eta populazioaren ahaleginak batzea eta komunitateen baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalak hobetzea duten prozesuak dira eta, horrela, komunitateak herriko bizitzan sartu eta nazioaren aurrerabideari lagundu egiten diote.” Egun, gobernuak barik, Gobernuak Kanpoko Erakundeek bideratzen dituzte horrelako egitasmoak gehienetan. Amerika Latinoan ere bide honetatik joan ziren.


(2) Ikus adibidea hurrengo orrialdeko irudian.

Ariketa: goikoa irakurri ostean:

- Bereiz ezazu komunitatearen antolaketa eta Komunitate Garapena; eman hiru desberdintasun gutxienez.
- Egin irudi bat gaur eguneko Komunitate Garapena nondik agertu den azaltzeko, osagai guztiak kontuan hartuz, Pedagogia Sozialarena ere bai.
- Azal iezaiozu beheko irudia gelakide bati.

GOBERNU MAILAK ETA NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

NBE, Estatua, Autonomia, probintzia, udala



Definizio egoki bat egiteko dauden zailtasun horiek gorabehera, geurea egiten saiatuko gara: Komunitate Garapena errealitatea aldatzeko metodo bat da, populazioaren parte-hartzea bultzatu nahi duena, jendeak berak azter, egin eta ebalua ditzan ustez bere bizitza hobetuko luketen programak eta egitasmoak. Metodoa erabiltzeko baldintza batzuk egon behar dira: taldeko ki-deek protagonista izatea nahi izan behar dute, lankidetzan sinetsi behar dute, sistema politikoak deserdiratzearen alde jokatu behar du eta demokrazia minimoa egon behar da. Hau da, esku-hartzea behetik gora eratu behar da eta ez goitik behera.

1.4. ZELAN EGITEN DEN LAN KOMUNITATE-ZERBITZUETAN. METODOLOGIA

Ariketa: Hasi baino lehen, ariketa hau egingo dugu: irakurri Emakunde aldizkaritik ateratako artikulua, 2000. urteko abendua, “Emakumeen elkarteak: Getxoko Eskuz Esku elkarteak” izenarekin:

Eskuz Eskuren historia eta honen fundatzaile eta lehendakari denarena, Susi Asteinzarena, andre euskaldunek azken urteotan izan duten bilakaera egiaztatzeko lagin dira. Susirentzat dena hasi zen Emakumea Sustatzeko Zentro batean. Zentro hauek andre askori etxetik irteteko aukera eman zioten, emakumeak kafea hartzen egotea txarto iku-

.../...

.../...

sita zegoenean. Han, batzuek irakurtzeari eta idazteari ekin zioten, beste batzuek egunkariak irakurtzeari, eguneko berriak aztertzeari mundu mailakoak zein herri mailakoak edo, baita ere, oinarritzko ikasketetako gai erdi ahantziak berrikusteari. Emakume batzuek lortu nahi zutena seme-alabei eskolako lanak egiten laguntzea zen, senarrekin berba egitea azken berrien gainean edo etxetik irten eta harremanak izatea baino ez.

Baina zentro haietatik ardura izugarriaren andreak atera ziren, Susi Asteinza tarteko. *Leioako Andrak* elkarteak fundatu eta gero, beste erronka garrantzitsu bat hartu zuen: andreen ikasketen arloan zegoen hutsune handia betetzea. Kezka hartatik benetako lanpostuaren bilaketan, garapenean eta heziketan zentratutako elkarteak sortu zen Getxon 1997an, *Eskuz Esku* elkarteak hain zuzen ere.

Asteinzak eta bere zuzendaritzako lankideek- Dorita Busto eta Valen Gómez- Uribe Kostaz haraindi doan egitasmoa sortu dute. Ilusio eta ahaleginez betetako hiru urtean bakarrik, *Eskuz Eskuk* 780 bazkide egin ditu eta 300 pertsonari eskaintzen dizkie ikastaroak. Hainbeste lagun artean, jakina, denetariok daude. Batzuek eskola-graduatu nahi dute lortu, derrigorrean edo gogo ezagatik utzi zituzten oinarritzko ikasketak osatzearen. Baina beste andre askok Batxilergoa edo UBI amaitu zuten edo administrariak dira, edo inoiz amaitu ez duten karrera bat hasi zuten. Argi baino argiago dagoena hauxe da: denek nahi dute lanbide heziketa eta hezkuntza okupazionala. Gehien eskatzen dutena osasun arlokoa da, zaharren zainketari dagokiona bereziki.

Behar eta ardura horiek guztiak asetzeko, elkarteak kurtso franko eskaintzen du. Beste batzuen artean, klinika laguntzaile, pediatria, sozietate eta kultur animazioa, etxeko laguntza eta ezinduen mobilizazioa, Alzheimer jasaten dutenen zaintza lana eta buruko osasuna, informatika, Unibertsitaterako sarrera, odontologia laguntzaile, informatikaren bidezko kudeaketa administratiboa, lorezaintza ikasketak... Gainera, 50 urtetik gorakoentzat tailerrak ere badituzte: kantu korala, yoga eta antzerkia. Eta gainera, hainbat gai erakargarriak eta garapen pertsonalari buruz berbaldiak antolatzen dituzte.

Egun, Alzheimerrean duten pertsonak jagoteko espezialista ikastaro bat dago martxan, Eguneko Zentro bat kudeatzeko prestakizuna ere eskaintzen duena duena. Amaitzen denean, Eusko Jaurlaritzak bideragarritasun proiektua ordainduko du. Aldekoa bada, enpresa bat sortuko da. Aldez aurretiko planaren arabera hamar oheko instalazioa beharko da.

Eskuz-Eskuk eskaintzen duen ekintza aukera handia, alde batetik, Emakundek eta euskal instituzioek posible egiten dute, eta, bestetik, Getxoko hezkuntza zentroetako arduradunen borondate onak gelak, horietatik uzten baitizkiete. Eskolak Lanbide Heziketako Institutuan, *San Ignacio* ikastetxean eta Karitatearen ikastetxean ematen dira. Gelak eskola orduetatik kanpo erabiltzen dira. Oso era trinkoan, gainera, zeren,- Asteinzak umoretsu dioenez- "txinpartak eta guzti ateratzen dizkiegu". Ikastaro bakoitzean goizeko eta arratsaldeko txandak daude, eskuarki lau ordukoak asteko egun bitan bananduta. Hezkuntza taldea osatzeko Bilboko Bagabiltza emakume elkarteak kontratatzen da, Langai-ren elkarte laguntzailea dena.

Txangoak ere aurki ditzakegu eskaintza zabalaren barruan. Programatutako irteerak agerian uzten dute gaur eguneko andreaken kezka eta eboluzioa: kultura arlokoak baino ez dute arrakastarik. Asteinzak berak azaltzen du: "helburu eratzaile edo kulturalik ez duen txangoa proposatzen denean, ia emakumerik ez da joaten. Gaur egun andreak badaki eta zer gura duen eta nora joan."

Eskuz-Eskuko ikasleatariko gehienak gazteak ohi dira. Andreak egoera zibil desberdinekoak dira; batzuk bananduta daude eta beren kargu dituzte etxekoak. Ondo garbi dute ikasi eta lan egin edo lanpostuan hobera joan behar dutela. Ikasleen motibazioa eta irakasteko metodoen eraginkortasuna neurtzeko ez dago emaitza akademikoak ikustea baino hobirik. Gaindituen maila %90ekoa da.

Ikastaroen eskaera handiena sozietate laguntzaren esparruan dago, gerontologian batez ere. Espezialitate horrek zaharren egoitzetan, eguneko zentroetan edo etxeko laguntzan

.../...

.../...

lan egiteko ematen du gaitasuna. Alde teorikoa enpresetan egin beharreko praktika batzuekin osotzen da. Lan munduan sartzeko orientazioa ere ematen zaie.

Ez dagoena jakiterik lana zenbat ikaslek lortu duen da. Hala eta guztiz ere, udaletako Sozietate Ongizateko bulegoetatik langileak eskatu zaizkio *Eskuz Eskuri*. Estatistikak ez dute askotarako balio, ikasle batzuek lana bere kabuz lortu dutelako.

Ikastaroak eta tailerrez gain, elkarte getxotarrak zerbitzu psikologikoa eta debaldeko laguntza juridikoa ere eskaintzen ditu: “Andre asko arazo familiar zein pertsonalekin doazela konturatu ginen, profesionalen laguntza behar dutela, hala psikologikoa nola juridikoa”, azaltzen digu Asteinzak.

Ekintza programatu guztien kudeaketa Alango kaleko 30. zenbakian dagoen bulegotik egiten da. Etorkizunean, Getxoko Udala eraikitzen ari den Eguneko Zentroko bulego batera joateko asmoa daukate.

Eskuz- Eskuko harremanetarako telefonoa 944 602 617 da.

Eman erantzuna galdera hauei:

- Zer da juridikoki *Eskuz-Esku*?
- Populazioaren zein sektoreekin egiten du lan?
- Animazioaren zein modalitate jorratzen da elkartearen (kultura, sozietatea, hezkuntza)?
- Zelako hezkuntza mota eskaintzen da? Hiru ezaugarri eman
- Zelan egiten da lan elkartearen, taldeka ala bakarka?
- Nork osatzen ditu taldeak, espezialistek bakarrik, kideek eta espezialistek, kideek, espezialistek eta beste pertsona batzuek...?
- Boluntarioek badaukate lekurik honelako elkarte batean?
- Esango zenuke honelako taldeetan jendeak parte hartzen duela?
- Zure ustez, zelan lagunduko dio elkarte honek garapenari: jende guztiak ikasketa gaiak gaitzitzea lortuz edo andreei kezka berriak sorraraziz eta euren bizitzan aurrera egiteko bidea erakutsiz edo bakoitzak bere bidea aukeratzea eta bizitza aldatzea lortuz? Eztabaida ezazu. Gero azal talde handiari interesgarri iruditu zaizun beste baten esana.


Lanaren eta metodologiaren ezaugarri batzuk:

Komunitatearen garapenaren muina, Ander-Eggen berbaz, ez da egiten dena, zelan egiten den baina, hau da, jarduera edo prozesua bera; horrek taldeari pentsamoldea aldarazi, kontzientzia harrarazi eta tresnez baliatzen laguntzen dio. Autore berak dioenez, Komunitate Garapenean ez dago metodologia bat, metodologia multzoa baino; gaur egun, hala ere, erabiliena Ikerketa-Ekintza Parte harrarazlea da (*Investigación – Acción Participativa —IAP—* gaztelaniaz); izenak dioten moduan etengabeko jarduera bihurtzen dena, denek parte hartuz eta horren abiapuntua da, ikertzen ari garen errealitatean geuk ere eragina dugula.

Prozesua honela azal daiteke:

Egoeraren ikerketa ⇒ diagnostikoa ⇒ ekintzak erabaki denon artean ⇒ guztiek ekin lanari ⇒ egoera berria eta erabili dugun prozedura ebaluatu ⇒ beste diagnostiko bat egin ⇒ beste ekintza batzuk erabaki egoera berriaren arabera...

Aurreko ariketatik ondoriozta daitekeenez garbi ikusten da taldea oso gai askotariko adituez osatzen dela eta horiek boluntarioak edo “profesionalak” izan daitezkeela. Talde hori osatzeko fase batzuk bete behar dira:



1.5. PLAN, PROGRAMA, EGITASMO

Honezkero ezagun egingo zaizkizu berba horiek, eta jakingo duzu lan sozialarekin lotuta daudela, baina zerk bereizten ditu elkarrengandik?

Ariketa: hiru edo lau laguneko taldetan ipinita, saia zaitezte berbak bereizten. Gero, talde guztiek esaten dutena ezagututa, eman denen artean eginiko definizioa.

Hiru berba horiek sarritan elkarren sinonimotzat erabiltzen badira ere, badute esanahietan ñabardurarik. Begira ditzagun hiztegia:

Plan. *Iz. 1.* Etorkizunean egingo diren edo egin nahi diren ekintzen edo neurrien azalpena eta programa; direlako ekintza eta neurri horien multzoa. *Garapen-plan orokorra. Euskalduntze-plana.*

Programa. *Iz. 1.* Lan, ekitaldi, ikuskizun, etab.en atalen azalpen ordenatua; azalpen horren berri ematen duen idatzia. *Jaietako programa burutzen ari dira bileran. Kontzertuaren programa banatu dute.*

Egitasmo. *Iz.* Egin nahi den lan garrantzitsu bati buruzko plan xehatua. *Euskal hizkuntz atla-saren egitasmoa aurkeztu. Lege-egitasmoa.*

Ikusten denez, berba horietako bat azaltzen saiatzean, beste horietakoa erabiltzen da eta hor-tik nahasteak sortzen dira. Okerbide hori zelan edo hala saihesteko honako erabilera hau propo-sa liteke: ageri denez, hiru berbotatik abstraktuena, orokorrena, PLAN da; honen bidez politi-ka-lerro nagusiak adierazten dira: *Pobreziaren kontrako plana...* Beste alde batetik, programa berba segidarekin dago lotuta, hau da, plan baten barruan dagoen pausoen jarraipenarekin. As-kotan, egitasmoren sinonimo legez erabiltzen da. Azkenik, egitasmo barbarik zehatzena da, hau da, plan baten barruan eta programak azaltzen duen pauso batean egiten den jarduerak.

1.6. BIBLIOGRAFIA

ANDER-EGG, Ezequiel : *El léxico del animador*, Madril: CCS, 1999, 88 or.

— *Metodología y práctica del desarrollo de la comunidad*, Buenos Aires: Lumen-Humanitas, 1998, 142 or.

CARBO, Olga; eta CATALA, Ricard: *Ecoterritorio y animación sociocultural*, Valentzia: Grup Dissabte, 1991, 238 or.

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA: *Diccionario de la lengua española*, Madril: Espasa Calpe, 1995, liburuki bi.

HOREJS, Irene: *Formulación y gestión de microproyectos de desarrollo*, Buenos Aires: Humanitas, 1995, 238 or.

PETRUS, Antonio: *Pedagogia social*, Bartzelona: Ariel, 1998, 447 or.

QUINTANA, Jose María: *La animación comunitaria*, Buenos Aires: Lumen Humanitas, 1997, 59 or.

SANZ, Patxi: *Komunitate Garapenerako apunteak*, Oñatiko Zuazola-Larraña Institutua.

ZZAA: *Euskal hiztegi entziklopedikoa*, Donostia: Klaudio Harlutzet Fundazioa, 1995, 8 liburuki.

— *Euskal hiztegi modernoa*, Donostia: Elhuyar/ Elkarlanean, 2000, 1065 orr.

Ekipamenduak

2

AURKIBIDEA

2. EKIPAMENDUAK	29
2.1. Zer dira?.....	31
2.2. Ezaugarriak	31
2.3. Tipologia.....	31
2.4. Fitxak	32
2.4.1. Ekipamenduaren gaineko datuak.....	32
2.4.2. Ekipamenduaren ezaugarriak	32
2.4.3. Erabilpenari dagozkionak.....	33
2.4.4. Baliabidearen gaineko datuak	34
2.4.5. Baliabidearen ezaugarriak	34
2.5. Bibliografia	35

2.1. ZER DIRA?³

Definizio klasiko bat ematearren, ekipamenduak jarduera jakin bat gauzatzeko behar-beharrezkoak diren tresna, aparatu eta ekipo multzoak dira; gure esparruari dagokionez, lan artistikoak, intelektualak, kulturaren arlokoak eta talde sozial, familiar eta gizabanakoen jarduera psikikoetarako erabilgarriak direnak.

Baliabide mota bat direla esan liteke, baina, gehienetan, ekipamendu berbak toki handiak adierazteko erabiltzen da; esate baterako: kultur etxeak, liburutegiak... eta gainera, baliabideetan teknikak, pertsonak –komunitatea osotzen dutenak tartean-, dirua, tresnak... ere sartzen dira

2.2. EZAUGARRIAK

Ekipamenduek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Komunitatetik hurre egon behar dira, hau da, jendearen premien zerbitzuan eta aldatu eta egokitzeko prest; jendeak erabil ditzan pentsatuta egongo dira, hau da, parte-hartzea bultzatzeko eta informazioa emateko. Komunitateak berak kudeatzen lagundu behar du.
- Ekonomikoki ondo hausnartuta egon behar dira: ahalik balioaniztunenak. izan behar dira; baliabideek euren kabuz funtzionatu behar dute.
- Bertan lan egiteko giroak ona izan behar du: animatzaileek ez dute sentitu behar zer egin goitik ezartzen dietenik; haien lana autonomoa izan behar da, nahiz eta gainbegiratuta egon.

2.3. TIPOLOGIA

Iraunkortasuna kontuan hartuta ekipamendu mota bi dago:

- Finkoak.
- Mugikorrak.

Funtzioak kontuan hartuta:

- Berariazkoak, eginkizun baterako prestatuta daudenak, jardueraren kalitatea segurtatzearen.
- Balioanitzak, toki bera eginkizun askotarako erabiltzen denean.
- Integratuak, leku handi batean txokoak eginkizun desberdinetarako erabiltzen direnean.
- Baliabide guneak; ez diete taldeei zuzenean laguntzen; informazioa, dokumentazioa eta materialen mailegua egiten die beste programa batzuei.
- Populazioaren sektore bati bakarrik zuzenduta daudenak.

Batzuetan, hiriak edo herriak eurak bihurtzen dira sozietate eta kultur ekipamendu

Ariketa: eman ezazu goiko tipologietako adibide bana.

(3) Ekipamenduen gaineko teoria eta fitxak ikasleek ikasturtean zehar egin behar dituzten bisitetarako baliagarriak dira. Egoiena zortzi/hamar irteera egitea litzateke. Hirugarren bisitarako, ikasle bakoitzak aurkitzen duenari bere fitxa egokitzea espero da. Honetaz aparte, ikasleak informazio triptikoak, argazkiak... gehitu edo, bestela, fitxa berri bat egin behar du.

2.4. FITXAK

2.4.1. Ekipamenduaren gaineko datuak

<i>Izena</i>	
<i>Helbidea</i>	
<i>Herria</i>	
<i>Telefonoa, faxa, posta e.</i>	
<i>Ezaguna ⁴</i>	

2.4.2. Ekipamenduaren ezaugarriak

<i>Tipologia</i>	
<i>Animazioaren esparrua</i>	
<i>Noiz sortu zen</i>	
<i>Helburuak</i>	
<i>Eboluzioa</i>	
<i>Nork kudeatzen duen</i>	
<i>Organigrama</i>	
<i>Dirua nondik ateratzen den</i>	
<i>Zenbateko aurrekontua daukan</i>	
<i>Urtean zeharreko ekintzak</i>	
<i>Publizitatea</i>	
<i>Ordutegia/egutegia</i>	

(4) Norekin hitz egin dugun idatzi behar da hemen, eta baita zer lan betetzen duen ere.

2.4.3. Erabilpenari dagozkionak

<i>Edukiera⁵</i>	
<i>Betetzea⁶</i>	
<i>Sartzeko baldintzak. Itxarote zerrendarik?</i>	
<i>Erabiltzaileen perfila</i>	
<i>Kexak. Erreklamazio- libururik</i>	
<i>Animatzaileen kezka</i>	
<i>Datuak noiz batu diren</i>	

(5) *Edukiera*: ekipamenduak zerbitzua zenbat laguni eskain diezaiokeen.

(6) *Betetzea*: zenbat lagunek erabiltzen duten ekipamendu hori.

Edukiera eta betetzea bereizteak ekipamendua gutxiegi edo lar erabiltzen den jakiteko balio du, zabaltzea eskatzeko, zerbitzuaren hobekuntza lortzeko...

2.4.4. Baliabidearen gaineko datuak

<i>Izena</i>	
<i>Baliabide mota (erakunde, elkarte, fundazio)</i>	
<i>Helbidea</i>	
<i>Herria</i>	
<i>Telefonoa, faxa, posta e.</i>	
<i>Ezaguna</i>	

2.4.5. Baliabidearen ezaugarriak

<i>Animazioaren esparrua</i>	
<i>Noiz sortu zen</i>	
<i>Helburuak</i>	
<i>Eboluzioa</i>	
<i>Antolaketa- organigrama</i>	
<i>Langile eta laguntzaileen ezaugarriak</i>	
<i>Egitasmoak- programak</i>	
<i>Diru iturriak</i>	
<i>Beste baliabideekiko harremanak eta loturak</i>	
<i>Publizitatea</i>	

Ariketa: desberdin itzazu baliabide eta ekipamendu kontzeptuak, definizioak eginez eta adibideak jarritz. Erabil nahi beste material informazioa lortzeko.

2.5. BIBLIOGRAFIA

URTXINTXA SUSPERKETA ESKOLA: *Definiciones y modalidades de la Animación Socio-cultural* [apunteak].

*Komunitatearen
ingurumena eta
beharrak:
errealitatearen analisisia*

3


AURKIBIDEA

3. KOMUNITATEAREN INGURUMENA ETA BEHARRAK: ERREALITATEAREN ANALISIA	37
3.1. Errealitatearen analisia.....	39
3.1.1. Zer da?.....	39
3.1.2. Zer aztertu?.....	39
3.1.3. Datuak batzeko teknikak	41
3.1.4. Nora jo datuen bila?	41
3.2. Bibliografia.....	42

3.1. ERREALITATEAREN ANALISIA

3.1.1. Zer da?

“Zelan egiten den lan komunitate zerbitzuetan. metodologia” izeneko atalean ikusi dugun legez, errealitatearen analisia lan-taldearen osaerako fasea da, eta baita gizarte-lanean burutzen den prozesuaren fasea ere. Prozesu hori honela adieraz daiteke:



Behin prozesuan sartuz gero, etengabeko bihurtzen da hori eta, gainera, ebaluazioa ere edozein fasetan egin behar da, bide onean gaudela segurtatzeko; grafikoan aipatzen dena amaierako ebaluazioa da, egitasmoaren gorabeherak aztertzeko balio duena, baina edozein fasetan bide onean goazen aztertzea ezinbestekoa da, gure ahaleginen ordaina porrota izatea gura ez badugu. Hau guztia, dena den, egitasmoa osatzea planteatzen denean ikasten da egiten, ikasturtearen amaieran.

Errealitatearen analisisian une bi daudela esan daiteke:

- Lehenengoak ingurumen zehatz batean kokatzeko balio du; ingurua ezagutu egin behar izango da, lanean bertan mugitu ahal izateko eta, gainera, horrela han dauden arazoak eza-gutzen hasiko gara. *Analisi orokorra* izena jarriko zaio analisi honi. Une hori ariketan landuko da.
- Bigarren unean, hau da, behin ingurua ezagututa dagoenean eta arazo bat konpondu behar denean, horrexen gainean egingo da behar, beste aspektu batzuk baztertuta. Honi *Analisi zehatza* esango zaio, hau da, proiektuak edo egitasmoak gauzatzeko egiten dena.

3.1.2. Zer aztertu?

Oso garrantzitsua da, analisiaren arabera eta egitasmo edo programaren arabera, batu beharreko datuak ondo zehaztea.

Orokorrean, datuak mota hauek izaten dira, eta analisi orokorra egiteko guztietatik hartzen dira, nahiz eta sakontasun handirik erabili ez:

- *Kokapenari dagozkion datuak*: fisikoak (geografikoak) zein historikoak; datu horien bidez, ingurumenean kokatzea lortu behar dugu, tokiaren ezaugarriak aztertuz (non dagoen, komunikabideak, historian zehar izaniko harremanak, zabaldu den edo ez, antzinako jarduera ekonomikoak...). Garraio-bideak eta geltokiak ere agertu behar dira.
- *Populazioari dagozkion datuak*: biztanleen banaketa adinaren eta sexuaren arabera, jendearen mugimenduak –emigrazioa, inmigrazioa– jaiotza eta heriotza tasak, bizitza-esperantza, familiaren egitura (monoparentala edo guraso bakarrekoa, nuklearra, zabala, heterosexuala, homosexuala...), amek lehen umea zenbat urterekin ohi duten, adopzioak (zenbat, nondik).
- *Etxebizitzari dagozkien datuak*: populazioaren banaketa auzoetan maila ekonomikoaren arabera, jatorriaren arabera, auzoek eskaintzen dituzten zerbitzuak...
- *Kulturari dagozkion datuak*: jendearen ikasketa maila, eskola porrota eta baliabideak (ikastetxeak, hizkuntza eskolak, AEK, instituzio kulturalak Euskaltzaindia, kasu, musika eskolak, liburutegiak, akademiak...).
- *Ekonomiari dagozkion datuak*: lanaren ingurukoak, hau da, enplegu tasa adinaren eta sexuaren arabera, sektore ekonomikoak, burtsa edo industria eta merkataritza ganbara dagoen edo ez, industrien kokapena, udaletxeen eta beste instituzioen jarrera kutsadurari, enpresei ematen zaizkien dirulaguntzei eta bestelako laguntzei dagokienez...
- *Administrazioa eta politikari dagozkien datuak*: epaitegi, erregistro, diputazio, mankomunitate, gobernu zein udaleko bulego administratiboen kokapena, funtzioak eta osaera, alderdi politikoen ordezkariak, erakundeek zertan diharduten, populazioak botoa nori ematen dion, tokian dauden polizia motak eta kuartelen kokapena.
- *Osasunari dagozkion datuak*: dauden baliabide eta ekipamenduak, hezkuntzan zein prebentzioan zer egiten den, droga-menpekotasuna.
- *Aisialdiari dagozkion datuak*: aldizkariak, egunkariak, telebista kateak, irratiak, zinemak, antzokiak, polikiroldegiak, kultur etxeak, gaztetxeak, ludotekak, jubilatuen etxeak eta bestelako ekipamenduak.
- *Elkarteen eta entitateen mailari dagozkion datuak*: horien sailkapena eurak ari diren esparruaren arabera egin behar da (feministak, ekologistak, karitatearen ingurukoak, garapen eta kooperazioaren mundukoak, sindikatuak, gaixoen edo ezinduen laguntzarakoak, kirolaren mundukoak...).
- *Sinesmenei dagozkien datuak*: elizak, meskitak, sinagogak, kultuak egiteko bestelako aretoak, komentuek, kanposantuak (zibilak badira, administrazioaren atalean sartzen dira) etab.
- *Istilu sozialei dagozkien datuak*: bandalismoa, jabegoaren kontrako delituak, manifestazioak, grebak, xenofobia eta arrazismo salaketak, tratu txarrak... Datuen eboluzioari erreparatzen zaio, gora ala behera egin duten ikusteko.

Datu horiek guztiak (edo gure lanerako beharrezkoak direnak) bilduta gero, ondorioak atera behar dira horietatik iragarpenak egiteko. Zenbat eta datu gehiago eta horien azterketa sakonagoa izan, pronostikoak errealistagoak izango dira.

Hona hemen atal bakoitzetik atera daitezkeen ondorioak:

– *Kokapenetik*, inguru fisikoak ematen dituen erraztasun edo oztopoak ikusiko dira eta, bai tradizioen pisua eta beste leku batzuekiko loturak ere.

– *Populazioaren azterketatik*, bizilagunen zahartze prozesua zelakoa den ikus daiteke, aita edo ama bakarreko familia asko egoteak eragin dezakeen zerbitzuen eskaera ager daiteke, baita inmigrazioaren ondorioz dagoen kultura aniztasuna ere; emigrazioaren ondorioz, ordea, gertatzen den sozietatearen zahartzea azal daiteke... hau da, etorkizunean beharko diren ekipamendu edo zerbitzuen susmoak izan daitezke, arrazismoa eta xenofobia prebenitzeko politikak bultzatzeko beharra ikus daiteke.

Ariketa: idatz beste ataletako datuetatik atera daitezkeen ondorioei buruz:

- Etxebizitzen informazioetik:
- Kulturaren ataletik:
- Arlo ekonomikotik:
- Ekonomia eta politikatik:
- Osasunaren esparrutik:
- Aisialditik:
- Elkartek eta bestelako entitateetatik:
- Erlijio eta sinesmenetatik:
- Gertatzen diren istilu sozialetatik:

3.1.3. Datuak batzeko teknikak

Hiru dira nagusiki: *behaketa*, *elkarrizketa* eta *iturri-dokumentuen azterketa*.

Behaketa egiteko, ikertzen den komunitatearen barruan egon behar da, nahiz eta batzuetan deskribatu baino egiten ez den, ahalik objektibotasunik handiena izateko; horixe egiten da, adibidez, etnografiako behaketan.

Elkarrizketa formala edo *informala* izan daiteke; formala aldeztu aurretik oso prestatuta dagoena da, zurruna eta zuzendua, galdera eta erantzun zehatzak baino kontuan hartzen ez dituen, gehienetan xedea datu kuantitatiboak lortzea izaten delako, bestelakoak oso gaitzak baitira zenbatzen; inkestetan berau erabiltzen da. *Elkarrizketa informala* orokorra da, gai batetik hasi eta hariari jarraitzen zaio, baina ezelako zurruntasun barik.

Bestetik, elkarrizketa *edonori* egin dakioke edo *oso informatzaile bereziei* baino ez, lortu nahi dugun informazio motaren arabera; esate baterako, osasun zerbitzuak zelan dabilzan ikertzeko, kaleko edozeini egin diezaiokegu inkesta edo galdeketa, edo osasun zentrora joan eta hango mediku eta bestelako langileei egin dakieke.

Iturri-dokumentuen azterketa egiteko, edozein formatutan datozen dokumentuak erabiltzen dira: historikoak, estatistikoak, txostenak, dokumentu ofizialak, artxiboetakoak, dokumentu pertsonalak, hemerografikoak, grafikoak, ahozkoak (zintak, bideoak), errealitatearen beste analisi batzuk, monografiak....

3.1.4. Nora jo datuen bila?

Hauze izaten da parterik gaitzena hasi berriarentzat.

Behaketari dagokionez, esan den legez, ikertuko diren taldeetan sartu behar da eta horietan adi-adi egon.

Elkarrizketa erabiltzen bada datuak lortzeko, eta informatzaile jantzia nahi baldin bada, udaletara, aldundietara, elkarteetara... joan beharko da.

Baina iturri-dokumentuak non lortu? Inguru batean kokatzeko oso baliagarria da atlas eta entziklopedietatik erdietsitako informazioa, udalek argitaratzen dutena, historia, kultura, informazio orokorra, telefono zenbaki, mapa eta guzti. Populazioaren gaineko datuak eskuratzeko Eustat (<<www.eustat.es>>) eta udaletako erroldak erabil litezke. Delitu eta istiluei buruz Ertzaintzaren komisarietan eta udaltzainen bulegoetan dauzkate datuak. Beste alde batetik, <<www.euskadi.net>> helbidean Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek dituzten zerbitzu, erakunde, argitalpen eta abar azaltzen dira, hala nola Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea. Azkenik, badaude interesdun beste datu-iturri batzuk, La Caixak, BBVak, Aurrezki Kutxek eta beste banketxe eta kutxa batzuek sustatzen dituzten fundazioak adibidez; edo bestelako fundazioak, ONCE kasurako, edo Gurutze Gorria, Cáritas, Alcohólicos Anónimos (<<www.alcoholics-anonymous.org/SPANISH/sphpg.html>>), AVSI, hots, Asociación de Voluntarios para el Servicio Internacional, mundu mailako gobernuz kanpoko zenbait erakunde ordezkatzeko dituen, (http://avsi.linknet.it) Agencia española de Cooperación Internacional (<<www.aeci.es>>), Amnistía Internacional, Greenpeace (<<www.greenpeace.es>>), Ecologistas en Acción, Eguzki, Paz y Tercer Mundo (<<www.sarenet.es/ptm>>), UNICEF (<<www.enredate.org>>), UNESCO, UNESCO Etxea, Gernika Gogoratuz, Elkarri, CONGD, hau da, Coordinadora de Organizaciones No Gubernamentales para el Desarrollo, Sector 3, 3. sektoreari informazioa eta zerbitzuak eskaintzen dizkiona (<<www.sector3.net>>), IHESaren aurkakoak, minbiziaren aurkakoak, feministak, tratatu txarren kontrakoak...

Informazioa da, hain justu, larregi dagoena; behar dena, beraz, buru argia da aukerak egiteko.

Ariketa: ikasleak bere herri edo, hori handia bada, auzoaren errealitatearen analisi orokorra egin behar du. Dokumentazio osoa aurkeztu behar du: mapa, piramideak, datuak, ondorioak... Lana egiteko aste bi edo izan ditzake.

Ariketa: gelan ikasleak adina herrialde azpigaratu aukeratuko da eta denen artean zozketa egingo da ikasle bakoitzari herrialde bat esleitzeko. Gero nor bere ondorioak azalduko dizkie besteei. Egokituriko herrialdearen analisia aste batean egin behar dute. Informazioa *Akal* argitaletxearen *Atlas del Estado del Mundo* edo antzerako liburu, aldizkari edo egunkarietatik atera dezakete.

Ariketa: jo egunkari eta aldizkarietara eta lortu handik komunitate garapenaren esparruan diharduten elkarte, fundazio eta entitateen helbide eta erreferentziak. Kopurua irakasleak finkatu behar du. Informazio hori guztia artxibatuta geratu behar da ikasturtean zehar eta egokiena da ikaslearen ingurumen hurbilekoa izatea.

3.2. BIBLIOGRAFIA

ANDER-EGG, *Ezequiel: Metodología y práctica de la animación sociocultural*, Madril: CCS, 2001, 431 or.

NOGUEIRAS, *Luis M. La práctica y la teoría del desarrollo comunitario: Narcea s.a. ediciones*, 1996, 168 or.

URTXINTXA ATSEDENALDIKO ESKOLA: *Apunteak*

*Mugimendu sozialak
eta sozietate zibilaren
garapena: definizioak*

4

AURKIBIDEA

4. MUGIMENDU SOZIALAK ETA SOZIETATE ZIBILAREN GARAPENA. DEFINIZIOAK	43
4.1. Psikologia sozialaren kontzeptu batzuk.....	45
4.1.1. Instituzioa.....	45
4.1.2. Erakundea.....	45
4.1.3. Rola.....	46
4.1.4. Taldea.....	47
4.2. Ongizatearen estatua.....	49
4.2.1. Zer da Estatua?.....	49
4.2.2. Historia apur bat.....	50
4.2.3. Ongizatearen Estatua eta horren krisia.....	51
4.3. Industria-sozietatea eta honen ostekoa.....	53
4.4. Sozietate Zibila edo hirugarren sektorea.....	55
4.4.1. Elkartea.....	56
4.4.2. Fundazioa.....	57
4.4.3. Gobernu Kanpoko Erakundea.....	58
4.4.4. <i>Self-help</i> taldea.....	59
4.4.5. Boluntarioak.....	60
4.4.6. Ekonomia soziala.....	61
4.4.7. Bidezko merkataritza.....	62
4.5. Mugimendu sozialak.....	63
4.6. Bibliografia.....	65

4.1. PSIKOLOGIA SOZIALAREN KONTZEPTU BATZUK

4.1.1. Instituzioa

Hiztegian berba horren esanahiari begiratzan badiogu, informazio bi lortuko ditugu: batetik, erakunde hitzaren sinonimo dela eta, bestetik, “denboran zehar finkatzen den antolaketa soziala, sozietatea zenbait molde jakinen arabera jokarazten duena eta haren egiturak osatzen dituena” dela; adibide legez hauxe dakar: “familia, eskola eta eliza dira, besteak beste, mende-baldeko sozietatearen instituzioak.”

Goiko definiziotik ondorio batzuk atera ditzakegu:

- instituzioak giza taldeek sortzen dituzte,
- abstraktuak dira,
- pertsonen portaera arautu egiten dute,
- denborarekin aldatuz doaz,
- sozietatea antolatzeko balio dute.

Adibideari erreparatzen badiogu, *familia* instituzioari adibidez, ikusiko dugu ideia abstraktua dela, eta aldakorra gainera, unibertsala den arren, planetako edozein lekutan familia berba erabiltzen denean denek ulertzen dutelako, baina, era berean, kultura bakoitzari eta garai bakoitzari lotuta dagoena. Horrela, bada, Bilbon gaur eguneko familia kontzeptua eta duela ehun urtekoa ez dira berdinak; halaber gertatzen da garai bereko baina herri askotako familiaren kontzeptuekin.

Ageri denez, kultura batean instituzioak aldatu egiten dira denboraren eraginaz, baina aldaketa horiek ez dira askotan automatikoak ez eta baketsuak izaten; Schvarstein-en ustez, instituzioak estatuarekin lotuta dauden arau multzo batzuk dira, ideiez, balioez, usteez eta sozietate harremanen erak ezartzen dituzten legez osotuta daudenak. Honi *ezarria* izena ematen dio eta, horren gaitzespena egiteko agertzen den indar berritzaileari *sortzailea*. Bien arteko harreman dialektikoari esker aldatuko da sozietatea.

Adibidean aipatutako instituzioez aparte, badaude beste asko: gaztetasuna, gaixotasuna, edertasuna... Eurek adierazten dituzte rolak eta rol horien jarduerak, hau da, gaztetasun instituzioak gazte izatearen ezaugarriak ematen dizkigu garai eta kultura jakin batean eta, gainera, gazte prototipoak, arrunta eta onargarria izan dadin, zelan jokatu behar duen ere markatzen digu. Hori *ezarrita* dagoena da. Eredu horretatik desbideratuta dagoena, pertsona multzo garrantzitsuak daukan ideia bada, elementu *sortzailea* da.

Ariketa: eman, adibide gisa, bost instituzioren izenak.

Ariketa: azter ezazu *edertasun* instituzioa: idatz itzazu koadernoan horri lotuta dauden ideia, balio, uste eta arauak. Gero, azter ezazu pertsona eder baten rola, hau da, zelan jokatu behar duen instituzioak ezartzen dionari kasu eginda. Azkenik, aipa itzazu gaur egun gure kulturaren dauden portaera desbideratuetarik arruntenak, horiekin lotutako errebendikazioak etab., *edertasun* instituzioa aldatzeko.

4.1.2. Erakundea

Erakundeak, alde batetik, leku batzuk dira, hau da, establezimenduak; bertan instituzio askoren jarduerak gauzatzen dira: eskola batean, kasu, irakaskuntza, gaztetasuna, lana, sexua, kultura, etika, adiskidetasuna eta abarreko instituzioak agertzen dira; fenomeno horri, Schvarstein-ek *zeharkatze* izena ipini dio.

Beste alde batetik, helburu batzuk lortzeko pertsona taldeak edo “arazo bila dabilzan irten-bideak” (*Weik*) ere badira.

Azkenik, erakundeen hirugarren ezaugarria sozietatearen produktu direla da, kulturaren kontzeptu, alegia.

Lehen ikusi denez, instituzioen eta erakundeen artean ez dago mugarik: instituzioek erakundeak zeharkatzen dituzte: ospitale batek, erakunde den heinean, ezin die bera zeharkatzen duten instituzioei leporik eman; horregatik era zehatz batean antolatuta egon beharko da; dirua jaso ahal izateko aurrekontuak instituzioak adierazten duen modura aurkeztu beharko ditu, zerbitzu batzuk ezin izango ditu eskaini eta beste batzuk derrigorrean sartu beharko ditu (adibidez gaitz-gaitza egingo litzaioke ile-apaindegi zerbitzua sartzea, musikaterapia erabiltzea, suerte txarra gaixotasuntzat hartzea, karma konpontzen saiatzea...). Era berean, erakundeek ere lagun dezakete sozietate aldaketan, instituzioak partzialki aldatuz; esate baterako, gero eta ospitale gehiagok dauka eskola zerbitzua bertan luzaro egon behar duten umeentzat. Ikertu denean ikusi denez, bisitak dituztenak arinago suspertzen dira; hori dela eta, etxekoei eta lagunei osterak egiten uzten zaie lehen ez bezala, orduan umeentzat txarra zela pentsatzen baitzen, bisitek alde egitean triste geratzen zirelako...

Gu denok modu bateko edo besteko erakundeetan bizi gara. Euretatik jaso behar dugu estimazioa eta onarpena; geure buruaren gogobetetasuna lortzeko, beraz, oinarrizkoa da erakundeetan daukagun jarduera egokia izatea.

Ariketa: aipa itzazu hiru erakunde. Taldean bilduta, aztertu denon erakundeak, zeharkatzen dituzten instituzioak aipatu eta instituzioetan aldaketarik lortu duten ikusiz.

4.1.3. Rola

Berba hori teatrotik dator eta antzezlan batean aktore bakoitzak jokatzen duen papera adierazten du. Kontzeptua psikologia sozialera igortzen badugu, ikusiko dugu pertsonok etengabe dihardugula paperak jokatzen, horrela hartzen baitugu parte erakundeetan: familia batean guraso, seme-alaba, iloba, lehengusu eta abar gara beste edozeinekiko; lagun taldean, beste rol batzuen artean, eskuzabal, sentimental, alai, temati edo beldurtiak gara; lanean eginkizun zehatza daukagu, besteekiko harremanak ezartzen dituen; lantokitik kanpo ikasten dihardugu, bezeroak gara...

Rol mota batzuk instituzioek ezartzen dituzte eta nahiko zurrunik izaten dira, hau da, este-reotipoak. Esate baterako, irakaskuntza instituzioak ikasle eta irakasle paperak ezarrita ditu: irakasleak ikasleak baino gehiago jakin behar du gai batzuetan behintzat; gutxienezko autoritatea izan behar du; dakiena igortzen jakin behar du; eroapeneko izan behar du... Ikasleak, era berean, markatuta ditu ezaugarri nagusiak.

Erakundeetan, oster, ereduzko paper hori aldatu egiten da norberaren ezaugarrien arabera, hau da, rol orokorra egokitu egiten dugu jardunean, gure ezaugarrietara makur dadin.

Ikus ditzagun rolaren ezaugarri batzuk:

- Portaera egonkorrak markatzen dituzte, hau da, estatikoak dira, sarritan ikusitakoari erantzuten diotelako; hala ere, rolak gauzatzen direnean dinamikoak izaten dira, hainbat egoerari erantzuna ematearren. Hori erraz ikusten da, kasu, alderatzen baditugu erizainaren portaera eguneroko errutinaren barruan eta larrialdi batean.
- Goian ikusi denez, rolak finkatzeko denbora behar da; beste era batean esanik, historian zehar moldatu eta aldatu egiten dira.

- Pertsona guztiak gara era berean rol-hartzaile eta rol-igorle , hau da, geuk adierazten diegu besteei eurengandik zer espero dugun.
- Gure esperantzen eta usteen komunikazio hori ahoz zein edozein eratan egiten diegu besteei. Oso arrunta da bulegariaren adibidea: zenbat eta gorago dagoen erakundearen barruan bat, leiho handiagoa bulegoan; oso maila baxukoa bada, ez du leihorik izango; ate itxiek esanahi zehatza dute baita, edo norbera zutunik egoteak ere nagusia jarrita dagoen bitartean... Era horretan komunikatzen dena ahoz adierazten dena baino garrantzitsuagoa ohi da eta mezu horiek ulertzeko gaitasun sozial handia behar da, bestelako gaitasunak baino sakonagoa sarritan. Denok ezagutzen dugu mezu horiek behar kontuan ez izateak dakartzan ondorioak: adiskideak galtzea, lanean gora ez egitea, giro desatseginean egotea erakunde batean... Beste alde batetik, gaitasun hori dutenek oso erraz egin dezakete karrera trebezia gutxiagorekin.
- Rolak kulturen arabera aldatzen dira: ama izatea ez da berdin Ameriketako Estatu Batuetan edo Polonian.
- Rolak gizabanakoen artean sortzen dira, hau da, funtsean bi elementuren arteko harremana adierazten dute (baina ez soilik bi elementurena); esate baterako, ama- seme, nagusi-menpeko, bezero-saltzaile, ikasle-irakasle bikoteak era “bertikalean” antolatuta daudenak, kide batek bestearen gainean boterea duelako; eta ikasle-ikasle, mediku-mediku, lankide-lankide...era “horizontalean” antolatuta daudenak, kideak parekoak direlako.

4.1.4. Taldea

Gizakia animalia taldekoi gisa definitu da sarri. Erakundeetan bizi garela esaten bada, erakundeak taldez osatuta daudela azpimarratu behar da. Taldea pertsonak batzeko unitate txikiena da, beraz. Baina guretzat taldea jende multzo soil a baino askoz gehiago da:

- Osotasunez jokatzen du, hau da, kanpotik ikusita errepikapen-taldekideen arteko lotura nabari da. Lotura edo koherentzia hau berezkoa da; taldekide bakoitzak taldeari bere nahiak, itxaropenak, lana, kezka... gehitzen dizkio eta elkarreraginezko prozesu baten ondorioz, denon artean sortzen da taldearen nortasuna, berezkoa eta taldekideenetatik independentea.
- Kideak helburu batzuk lortzeko batzen dira, baina gauza bat izaten da taldearen helburua eta beste bat, oso bestelakoa, bakoitzak talde horretan egoteko eduki dezakeena: lider bati jarraitzea, maitatua eta kontuan hartua sentitzea, prestigio soziala lortzea... Norberaren helburuak eta taldearenak bat joan beharko dira taldeak irautea nahi bada. Taldeen helburuak mota bitakoak izaten dira: alde batetik, lan edo behar bat izaten dute egiteko (gai batzuk hobeto ikastea, pertsona sektore bati laguntzea, eraginkorragoak izatea enpresan...) eta, beste alde batetik, partaideen heldutasuna, segurtasuna eta pertsona modura haztea lortu nahi da.
- Partaide izateko sentimendua dago taldea osotzen dutenen artean.
- Kideen arteko harremanak, arauak, antolaketa... barrukoek ezartzen dituzte.
- Bertakoak direnen kopurua eraginkortasunak, harreman-erraztasunak, adostasun ideologikoak... mugatuta dago.
- Talde barruan bakoitzari rol bat ezartzen zaio.

Taldeak izaki bizidunen modukoak dira: jaio, hasi, heldu eta hil egiten dira, baina tartean gaixotasunak eta garai onak ere izaten dituzte.

Talde motei dagokienez, era askotan sailka daitezke, aspektu desberdinetatik ikusita:

Taldekideen arteko lotura afektiboari erreparatzen badiogu, *primarioak* (oso harreman afektibo estua —familia, lagun minenak—) edo *sekundarioak* (lotura formalagoak, taldearen helburua ez da propio jendearen arteko harremanak bultzatzea, ez eta pertsona bakoitza ondo sentitzea lortzea) izan daitezke; lehen ikusi denez, komunitatea bera talde sekundariotzat har daiteke.


Erakundearekiko loturari erreparatzen badiogu, *talde-objektua* (ezarria da nagusi, inoiz ez da joango erakundea zeharkatzen duten instituzioek diotenaren kontra) eta *talde-subjektua* (erakundea aldatzeko eta bera ere erakundeak aldatzeko gaitasuna du; *sortzailea* da) aurkituko ditugu.

Taldearen helburuei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu, goian esanda dagoen bezala, mota bitakoak egoten direla, *lanari lotutakoak* eta *pertsonen hazkuntzari* lotutakoak; bi koordinatu horien artean kokatzen dira taldeak:

- lan txikia eta hazkuntza txikia, taldeak porrot egin du;
- lan txikia eta hazkuntza handia, “terapia taldea”;
- lan handia eta hazkuntza txikia, oso talde inpersonala, hotza, ezindua eta ezgauza baztertzen ditu;
- lan handia eta hazkuntza handia, ereduzkoa, talde heldua.

Ariketa: kolorezta eta azal ezazu irudiko informazioa, beheko azalpenaren arabera.

INSTITUZIOA-ERAKUNDEA-TALDEA



Azalpena:

- Obaloak instituzioen mundua irudikatu nahi du.
- Gezi luzeak, zeharkatze fenomenoak.
- Gezi laburrak, elkarreraginak.
- Lauki handiak, ordea, erakundea.
- Lauki txikiek taldeak adierazten dituzte.

4.2. ONGIZATEAREN ESTATUA

Lehenik eta behin, ariketa hauek egin:

Ariketak: taldean jarrita, saia zaitzte ondoko berba hauen definizioak ematen: gobernua, alderdi politikoa, subiranotasuna, industria-sozietatea, nazioa, konstituzioa.

Orain, eman itaun hauei erantzuna:

- Zein berba da definitzeko gaitzena? Zergatik?
- Hutsunerik nabaritzen al duzu zeure hezkuntza politikoan? Zein?

Denon artean eztabaidatu eta gero, begiratu zalantzazko kontzeptuak liburuetan.

4.2.1. Zer da Estatua?

Lehenengo eta behin, *estatu* kontzeptua definitzetik hasi beharko dugu. Estatu bat dagoela esateko, baldintza batzuk bete behar dira:

- Komunitatea egon behar da.
- Lurralde jakin eta zehatz batean.
- Komunitateak bere burua gobernatzeko mekanismoak eduki behar ditu; beste modu batean esateko, gobernua zein herria behartzen dituzten *legeak*.
- Bere gainetik ez du ezelako beste botererik onartu behar, hau da, burujabe izan beharra dauka. Ezaugarri hori *subiranotasunak* ematen dio, gaur egun lurralde demokratikoetan herriak edo nazioek ei daukatena, nahiz eta nazioarteko merkatuak, egoera geopolitikoak eta garapen ekonomikoak baldintzatuta dagoen. Hori dela eta, gaur egun autore batzuek eztabaida latza dute Europar Batasuna osatzen duten estatuen gainean eta ez direla propio estatu esaten dute.

Estatu berbaren esanahiaren beste zailtasun bat da sarritan egiten den erabilera desegokia, *nazio* terminoarekin nahasten denean, batzuetan ezkutuko asmo politikoekin. Hala, bada, nazio-estatuaren gainean berba egiten denean, ez da estatu horietan nazio bat baino ez dagoela adierazten, zeren gehienetan estatuak nazio askotarikoak izaten baitira, estatuaren ikurtzat bertan dauden nazioetatik bat hartu dela baino, edo nazio batzuen elementuak hartuta *pot-pourri* egin dela baino. Horrelaxe jazotzen da Espainiaz hitz egiten dugunean: nazio espainiarra definitzen duten elementuak hizkuntza (Gaztelakoa), folklorea (andaluza), gastronomia (jatorri askotarikoak: patata tortilla guztiz espainiarra, guk dakigula, I. Gerra Karlistan asmatu zen Euskal Herriko base-rri batean)...


Nazio eta estatu berbak bereizteko, hauxe esan dezakegu psikologia sozialari dagokionez: nazioa *instituzioa* dela, herri batek bere buruaz daukan hautematea, elementu komunetan oinarrituta: hizkuntza, erlijioa, kultura, bilakaera historikoa, hau da, auto-kontzientzia. Estatua, beste aldetik, *erakundea* da antolaketa administratiboan datzan aldetik.

Munduan estatu baino nazio gehiago dago; beste era batean esateko, estatu gehienetan nazio bat baino gehiago bizi da, nazio bakarreko estatuak badauden arren. Nazio bat hainbat estaturen artean bananduta gotea ere arrunta da tamalez (ikus Kurdistan edo Euskal Herria).

4.2.2. Historia apur bat

Estatuaren kontzeptu berria (ez, ostera, historia denetik ezagutzen duguna eta botere politikoarekin identifikatzen dena), hau da, gobernarien eta menpekoen arteko harremanean oinarritzen dena, Errenazimentuko teoria politikoetatik sortu zen, horien oinarria *botere zibila* baitzen, erlijiotik urrunduta eta hiritarraren parte-hartzea politikan kontuan hartzen zuena. Ideia berri haiek XVII. eta XVIII. mendeetan joan ziren finkatzen, zirkunstantzia hauek bultzatuta:


- Nobleziaren garrantzi politikoaren galera gertatu zen burgesiaren alde, aberastasun ekonomikoa lortzea gero eta helburu politiko argiagoa baitzen.



- Burgesia horregatik hasi zen aldarrikatzen gizakien arteko berdintasuna, nobleziak zituen pribilegioak, hau da, desberdintasunak, ezabatzearen. Puntu horretan oso bitxia izan da ordutik hona “gizon” berbari eman zaion esangura: batzuen ustez “gizaseme”-gisa ulertu behar bagenuen ere, beste batzuek “pertsona”-ren sinonimotzat hartu dute eta, gutxi batzuek, “gizon zuri”-tzat (ikus orduko dokumentuetan zelan erabiltzen den, *Droits de l’Homme*-n adibidez).
- Elizak politikan zuen esku-hartzearen murrizketa; morala erlijiotik bereizten hasi zen.
- Europako lurralde batzuk politika kolonialistetan sartu ziren buru-belarri; horrek botere zentralizatua eta sendoa eskatzen zuen. Era berean, estatu-nazioa sortuz joan zen, hau da, “berezko” mugak eta kultura, tradizioa... duten lurraldeen batura. Fenomeno horiek burrokrazia, zentralizazioa eta armada nazionalen indartzea ekarri zuten.

Hemezortzigarren menderako “ordena berria” ezarrita zegoen teoria ekonomiko eta sozialei esker, hau da, Ilustrazioari eta liberalismo ekonomikoari esker. Ordutik aurrera eta iraultza odoltsu ugariren ostean (Frantziakoa, iraultza burgesak –1820, 1830, 1848–, Komuna), joan ziren finkatzen Europako mendebaldean estatu liberalak, gero demokrazia bihurtu zirenak. Ekialdeko historia oso bestelakoa izan zen: absolutismoan ainguratuta eta ekonomikoki oso atzeratuta, XX. mendera arte bertako herria erdi esklabotzan, Eliza ortodoxoaren menpe eta ezjakintasun itzelean egon zen Polonian, Errumanian, Errusian eta abarreak, 1917ko Iraultza gertatu zen arte. Horrek esperantza berriak (ala gorroto sutsua) eman zizkion inguruko jendeari, nahiz eta, denbora joan ahala argi geratzen zen moduan, iraultzatik sortutako estatu komunista aurrekoak bezain zapaltzaile, ekonomia arloan gauzaez, ustel eta inperialista gertatu zen.

Mendebaldean XVII. eta XVIII.ean sortutako teoriarik garrantzitsuenak hiru lerro nagusitan bana daitezke:



Ariketak: bila ezazu hiztegian liberalismo politikoaren esanahia eta sar ezazu eskeman. Zergatik esaten da ordezkarien bitarteko demokrazian bizi garela? Bereiz itzazu demokrazia mota hau eta Rousseauk defendatzen zuena. Zein da hobea zure ustez? Eman itzazu arrazoiak.

4.2.3. Ongizatearen Estatu eta honen krisia

Wordsworth entziklopediak honelaxe definitzen du: “zeregintzat hiritarren ongizatea segurtzea duen sistema politiko. Estatuak familiei laguntza emateko, hezkuntza eta osasunerako, langabezia, pentsioak eta gaixotasunengatik diru-laguntzak ordaintzeko programak burutu eta zergak batu behar ditu.”

Izena ingelesetik datorkio “*welfare state*”. Frantzian “*estatu probidentzia*” izena ere ematen zaio.

Honelako sistema baten ideia Britainia Handian garatu zen 1942.eko Beveridge txostenetik; bertan, II. Mundu Gerrak eragindako kalteei irtenbidea eman nahi zitzaion. Hori teoria zen, praktika 1945ean hasi zuen gobernu laboristak.

AEBetan ere antzerako politikak hartuta zeuden 1929ko krakak probokatu zuen krisitik ateratzeko, Keynesen teoriaren arabera, hau da, eskaera pribaturik ez zegoenez, lanpostuak eta negozioak eskaera publikoak sortu behar zituen, merkatua arautu eta kontsumoa areagotzeko.

Ongizatearen Estatuaren izateko arrazoiak ez dira karitatea eta ongintza, Erdi Arotik zen bezala Elizaren eraginez, hiritar guztien eskubideak betetzea eta *justizia soziala* lortzea baino; ba-bestu behar diren sektoreei emandako laguntza ez da pribatua, publikoa baino, ez da borondaketezkoa, derrigorrezkoa baino. Horrek gastu publikoaren biderkatzea eta ahalegin bereziak eskatzen dizkio estatuari hiru esparrutan:

- Hezkuntzan, hiritarrak laguntzaren premia barneratu behar dutelako.
- Antolaketan, sistemak burokrazia handia eskatzen duelako.
- Zerga sisteman, progresiboa izan behar duelako eta zerga zuzenetan oinarrituta bidezkoa izatea nahi bada; gainera, hezkuntzarekin uztartuta egon behar du, iruzur fiskala txikia izan dadin.

Estatu mota horrek egiteko berriak ditu:

- Batez ere lanari dagozkion pertsona harremanak arautzen ditu (lan baldintzak, soldatak, kontratu motak, greba eta lanuzteak...)
- Hiritarrari eskaini behar dizkio zerbitzu batzuk hiritar izate hutsagatik, denek dituztelako eskubide berak.
- Bera da zuzeneko enpresaburua kasu batzuetan eta beti da ekonomiaren lerro nagusien kontrolatzaile eta bultzatzaile, banketxe zentralen bidez, zergen kenketa bereziz, abantailak emanez enpresa batzuei...

Ariketa: Ongizatearen estatua eta Estatu Modernoa bereiztu kontzeptu-mapa batean, haien ezaugarriak azalduz.

Sistema horren *krisia* 70eko hamarkadan hasi zen, Petrolioaren krisiaren ondorioz, langabezia izugarri hazi eta enpresa asko desagertu zirenean; horrek gastu publikoa etengabe igoarazi zuen, eta diru sarrerak, aldiz, murriztu. Baina lehen abisua 1968.eko maiatzean emanda zegoen, jendea asaldatu baitzen orduan estatuaren mota horren gehiegizko burokraziaren kontra eta boterean zeuden alderdi politikoek lorpen sozialok botoak metatzeko amu modura erabiltzen ziztuztela ikustean

Ezkerretik egin zaizkion kritikak ez dira izan sistema desegiteko, aldatzeko baino. Eskuinetik, ordea, estatu kontzeptu hori hazkuntza ekonomikorako oztopo legez ikusten da eta, hori dela eta, politika neoliberalak, gaur egun munduan garaile daudenak, *sistema eraisten ari dira* ahal duten bezain pronto (pribatizazio politikak, funtzionarioen gutxitzea edo desagertzea, lan eze-gonkortasuna...); horrek pobreziaren igoera ekarri du eta txiro izateko era berriak, gero ikusiko ditugunak. Dena den, ez da ahantzi behar enpresa askearen eta norbanakoen merituen defendatzaileek ongizatearen estatuak daukan gastua kritikatzin dutenean, ez dutela hau aipatzen: enpresariak eurek eskatzen diotela estatuari laguntza estutasunetan; adibidez, auto enpresa handiei emandako dirutzak itxi ez daitezen, Iberdrolari emandakoak Lemoiz geldiarazi zenean, eta abar. Arazoa, beraz, ez da gastu publikoaren munta, hura nora doan baino, sozietateari zuzentzen bazaio susmagarri bihurtzen delako “askatasunaren” defendatzaile batzuen begien aurrean.

Krisiaren beste ondorio bat herri-ekimenean oinarritzen den sozietate zibilaren itzulera izan da, hau da, Estatu pribatizatzen doan heinean, herritarrak berriro bereganatzen doaz utzitako esparru horiek, horrela babes soziala eman nahirik. Horrek *hirugarren sektorearen* hazkunde ikaragarria ekarri du 80ko hamarkadatik aurrera, gero hobeto ikusiko dugunez.

Ariketa: irakurri duzuetik eta bestelako informaziotik, atera ongizatearen estatuaren krisiaren ondorioak. Eztabaida itzazue denon artean.

4.3. INDUSTRIA-SOZIJETATEA ETA HONEN OSTEKOA

Industria Iraultzak ezaugarri hauek dituen sozietateari zabaldu zizkion atak:

- *Soldatapeko lana* zen sozietatearen ardatz, bertute publiko zein pribatuen iturri eta bana-koaren askatzaile Marxen hitzetan. Ostera, trukean soldatarik jasotzen ez zuen beharra ez zen lantzat hartzen.
- Beharra bazen sozietatearen ardatza, behargina haren protagonista bihurtzen zen; “produktibo” zenez, parte-hartze politikorako eta sozialerako eskubideduna ere bazen. *Etxekoan-dre/soldatapeko* bikotea sortu zen beraz; bertan, batek “dirua ekarri” egiten zuen etxera, besteak sozialki ikusezina zen lana betetzen zuen artean, biek bizirik iraun zezaten. Kulturaren kontzeptu berri honek andre generoaren menpekotasuna areagotu egin zuen gizon generoarekiko, lehenago beharra, nagusi zen baserri giroan behintzat, etxeko guztien kontu modura ikusten baitzen. Hala adierazten da antzinako erroldetan, non etxe osoaren datuak agertzen diren: “XXX, nekazari, X urtekoa eta haren andrea YYY, nekazari ...”. Errol-da berriak egiteko, agindua eman zuten “produktibo ez zen” lana ager ez zedin.
- Familia zabala izatetik *nuklearra* izatera igaro zen, hau da, gehienetan gurasoak eta seme-alabak osatzen dutena. Sozietate horretan “*etxe bat, soldata bat*” zen ideala. Nahiz eta Industria Iraultzaren hastapenetan andre eta umeen lana guztiz arrunta zen meatoki zein ehungintzan, gremioek pertsona horiek babesten ez zituztelako eta soldata oso baxuen truke lan egiten zutelako, gero behar mundutik atera nahi izango ziren, “berezko” zituzten tokietan egon zitezten: andreak etxean eta umeak eskolan. “Politikoki zuzenak” ez diren espezialista batzuek diote hori egin zela gehienbat lanpostua lortzeko lehia errazteko eta lan baldintzak hobetzeko asmoz (gizonentzat, jakina).
- Lanen ezaugarriek beharginen mugikortasuna eragiten zuten, herrialde industrializatue-netako lantoki berrien inguruetara. *Emigrazio* horrek jendea deserrotu egiten zuen eta babes sozialik gabe uzten zuen zoritxarren aurrean. Babes tresna berriak behar ziren, beraz, eta horietako nagusiena, sindikatu eta mutualitateez aparte, *Ongizatearen Estatu* izango zen. Tresna horien bitartez eta borroka latzak eginda lortu ziren *baldintza hobek* lanean zein bizitzan: lanorduen murrizketa eta lanegunen finkatzea, aisialdia eta turismoa instituzionalizatzea derrigorrezko hezkuntza, laguntza sozialak, pentsioak...
- Aurreko guztiaren ondorioa den fenomeno sortu zen: *hirien hazkunde ikaragarria eta desorekatua*. Langileen auzoak lantegi eta garraiobide auzoetan sortu ziren ezelako plan-gintza eta zerbitzu barik, txabolismoa, espekulazioa eta abar nagusitu ziren.
- Industrializazioak ezarritako produkzio sistemak *produktuaren ekoizpena* bera baino ez du kontuan hartzen, eta hori enpresariaren ikuspegitik ikusita baino ez. Hona hemen adibide bat: eman dezagun enpresa batek produktu tona kantitate bat ateratzeko halako ur garbi kantitate bat behar duela eta produktua lehiakorra izan dadin halako prezioan atera behar duela; bada, estatuak ura etxeetarako baino merkeago emango dio enpresari; erregaia eta argia berdin, produktuaren salneurria merkatzearren, eta erabilitako ura guztiz kutsatuta dagoenean, denon artean ordainduko dugu haren garbiketa, eta ez enpresariak. Politika eta kontrol gabezia horiek *kutsadura* maila itzela ekarri dute.

- Azkenik, sozietate industrialak ekarri zuen beste efektu bat aipatu behar da: munduko herrien arteko *desoreka* gero eta handiagoa izatea. Sistemak hori eskatzen du: produktua prezio baxuetan eskaintzeko, lehengaiak guti ordaindu behar dira (eta soldatak ere bai, baina hau bestelako kontua da); hau da, eskaera eta eskaintzaren legea lilura bihurtzen da. Horrek pobrezia kondenatzen ditu Lurreko herrialde aberatsenak lehengaietan, hots, Hirugarren Mundukoak eta *menpekotasun politikak* ezartzen ditu.

Petrolioaren krisiak, 1973.ean hasita, kolokan jarri zuen industria sozietatea. Horren eragileak kanpoko faktore bat izan zen gainera, gainera: OPEP, hau da, petrolio-esportatzaile diren lurraldeen erakundeak olio gordinaren prezioa igotzea erabaki zuen erosleek eskaintzen zioten salneurriari muzin eginez, oso baxua baitzen. Erosleek prezio berria onartu ez zuten, petroliorik ez saltzea erabaki zuten OPEPeko estatuek eta horrela lortu zituzten helburu batzuk, nahiz eta harrezkero munduko potentziek *gerrak* egin dituzten *baliabide estrategikoak* dituzten herrialdeak kontrolatuta edukitzeko, bertan gobernuak (Iran-Irak Gerra, Golkoko Gerra, Afganistango Gerra...) edo inguruan aliatuak ezarriz (AEB-Israel kasurako).

Beste alde batetik, industria-sozietateetan, *langabezia* igotzen zegoen, aurretik pentsaezin ziren mailetaraino, eta horrek estatuen politika sozialen indartzea ekarri behar zuen batetik eta, bestetik, produkzio-sistemaren gaineko *hausnarketa* sakonaren beharra ikusten zen, krisia ostera ere ez jazotzeko. Gogoeta horretatik eta estatuen politika sozialen mugetatik sortu ziren industria-osteko sozietatearen edo sozietate posmodernoaren ezaugarri batzuk. Beste zenbait, azkenik, azken hoge urteetan hain ugari izan diren *aldaketa teknologikoetatik* atera da.

Ariketak: atera itzazu goiko bi pasarteetatik industria-osteko sozietatearen eragileak. Zein baliabide estrategiko ezagutzen duzu gaur egun? Aipa ezazu hori kontrolatzearen sortutako gatazkaren bat.

Industria-osteko sozietatearen ezaugarri batzuk hauek dira:

- Industriaz hitz egiten dugunean, nazioarteko merkatuaz dihardugu, hau da, estatuen gaitetik eta sarri estatu horien politika kontrolatuz, jokatzeko duten indarrez. Merkatu askea dagoenik gaur egun ezin da esan, transnazionalak edo multinazionalak kontrolatzen baitute.
- Behar asko makinek ordezkatu dituzte, monotono izan eta gaitasun gutxien eskatzen zutenak eskuarki.
- Aurretik produktibotzat jotzen ez ziren behar batzuk, gaur egun horrela ikusita daude; esate baterako, lan intelektuala eta, gero eta gehiago, borondatezko lana.
- Produktibotasunik ezin da izan kontsumorik gabe; gure artean, batek kontsumitzen ez badu, ez da inor. Horrek eragin handiak izan ditu eguneroko bizitzan: aisialdia hazi egin denez, bera betetzeko industriak ere hazi dira, kultura kontsumo produktua bihurtu da eta, oso latza dena, kontsumo gaitasuna bazterketa sozialerako eragile bilakatu da.
- Teknologia eta sozietatea lotuta ikusten dira; aurrerabide soziala iraultza teknologikotik etorriko dela uste da.
- Zerbitzu sektorearen beharrak asko igo dira, 2. sektorekoen kaltetan (eraldaketa, industria propio). Lan mota berriak ari dira sortzen, batzuk produktuari begira ez daudenak, harremani baino, beste batzuk lan baldintza bereziak eskaintzen dituztenak, etxean egiten den beharra kasurako.

- Hezkuntzak gero eta munta handiagoa dauka sistema berriari egokitzeko eta, gainera, pertsonen bizitzan hezkuntza prozesua etengabea dela uste da.
- Familiaren egitura aldatuz doa, andrea lan mundura irteten hasi denetik. Gizonezkoek ardurak berriak dituzte, ume gutxiago dago etxeko, sexu-aukerak gero eta oztopo txikiagoak dira familia eratzekeo...
- Gazteek gero eta aukera gutxiago dute lan duin, iraunkor eta ondo ordaindutakoak aurkitzeko. Horrek istiluak sortzen ditu.
- Populazioa sozietate mota horietan zahartuz doa, bizi-baldintzak nabarmen hobetu direlako eta ume gutxi dagoelako.
- Belaunaldien arteko desfasea itzela da teknologiaren erabilpenari dagokionez, biztanle gehienek oso hezkuntza maila baxua dutelako arlo zientifikoan eta teknikoan.
- Desberdintasun sozialak areagotzen ari dira herri aurreratuenetan, hau da, teknologia berriak diskriminazio sozialerako beste eragile bat bihurtu dira.
- Aldaketen abiada kontuan hartuta, egokitzea gaitz-gaitza gertatzen zaie sozietate horietako banakoei zein instituzioei.. Horrek babesik eza dakar.
- Industria-osteko sozietatea ez da egokiena lotura sozial sakonak izateko, banakotasuna bultzatzen baitu.

Ariketa: goiko ezaugarriak irakurri eta gero, bana itzazu taula bitan dauzkaten alde on eta txarrak, aukera hori zergatik egin duzun adieraziz.

4.4. SOZIEKATE ZIBILA EDO HIRUGARREN SEKTOREA

Izen biak sinonimo dira; gaur egun, eta 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, bigarrena gehiago erabiltzen dela ematen du, nahiz eta gai horretan ezjakina denak nahas dezakeen jardura ekonomikoari dagokion “hirugarren sektore” horrekin, hau da zerbitzuez arduratzen denarekin (dendak, lanbide liberalak, irakaskuntza...).

Sozietate zibilaren definizioa egitea txit zaila da oraindik ez dagoelako, antza, guztiz egin da; baina, hori horrela izanda ere, ezaugarri batzuk aipa ditzakegu:

- Autore batzuek esaten dutenez, Hirugarren Sektorea da Estatuaren (hau da, administrazioa) eta Merkatuaren (hau da, produkzioa eta trukea) artean geratzen dena. Beste batzuen ustez, izen hori ongizate sozialaren esparruan lan egin eta zehazki publiko ez pribatu ez diren erakunde multzo bati eman behar zaio. Ikusten duzuen bezala, definizioa egitea ez da baste erraza.
- Arlo horretan kokatuta dauden entitateek ez dute irabazteko asmorik.
- Administrazio publikoekin eta enprekin batera egiten da lan.
- Bertan langileek zein boluntarioek jardun ohi dute, estatuak eskaintzen ez dituzten zerbitzuak ematen eta sistema ekonomikoak egiten dituen gehiegikeriak zuzentzen, hau da, biak kontrolatzen.

- Sektore horretan dihardutenak hauexek dira: elkarteak, fundazioak, entitate bereziak (Cáritas, ONCE, Gurutze Gorria), ekonomia sozialaren eragileak, hala nola Kutxak eta kooperatibak, eta mezenasgoa egiten dutenak.

Hirugarren Sektorearen garrantzia hazten ari da sektore “produktiboekin” alderatzen badugu; munduko zenbait herrialdetan administrazioak baino diru gehiago sartzten dute Gobernu Kanpoko Erakunde batzuek. *Fundación BBV*-ek egindako ikerketa baten ondorioz, badakigu Espainian 2000. urtean 250.000 entitate, 3 milioi boluntario eta 600.000 langile zegoela arlo horretan; erakunde horiek Barne Produktu Gordinaren % 5,8 sortu zuten.

Nondik lortzen da dirua Hirugarren Sektorean? Diru iturriak desberdinak dira entitatearen definizioaren arabera: fundazioek, adibidez, patrimonioa izan behar dute sortzerakoan, baina, gehienetan, diru publikoaz finantzatzen dira, nahiz eta batzuek, Greenpeacek eta Amnesty International-ek kasu, ez duten egundo ere inongo gobernutik dirurik jasotzen. Bestetik, kideen dirua, emaitzak, enpresen laguntzak (marketing solidarioa, adibidez: “Pepsi bat erosten duzun baikoitzean, gure enpresak X diru kantitatea emango dio Y erakundeari”), loteriak, zozketak eta, gero eta inportanteagoa dena, erakundeek ematen dituzten zerbitzuen kobrantzak batzen dira; azken hau, jakina, zerbitzu-hartzailearen gaitasun ekonomikoaren neurrikoa izan ohi da.

Ariketak: egizu irudi bat Estatu-Merkatu-Hirugarren Sektore harremana azaltzeko. Taldean jarrita, emazue Hirugarren Sektore edo Sozietate zibilaren definizioa. Aurki ezazu informazioa 3. Sektoreak egiten dituen batzarren gainean. Debate gaia: 3. sektorea negozio ote da gaur egun? Alde onak eta txarrak.

4.4.1. Elkartea

Legezko izakia da, hau da, zuzenbidearen esparruan “pertsona” izena ematen zaion entitate bat, eskubide eta betebeharrak dituen, nahiz eta fisikoki existitzen ez den. Bere azkeneko egin-beharra komunitatearen alde lan egitea da, eta, horrela, denon bizi-kalitatea hobetzea, errealitatea aldatuz. Hauexek dira bere ezaugarriak:

- Taldea osotzen duen jendea *borondatez* batu da. Inor ezin da behartu elkarteko kide izatera, beraz.
- Zeregin edo helburu *egonkorra* du, legezkoa izango dena, zerbait ezkutukoa edo paramilitarra ez bada; kasu horietan elkartea legez kanpokotzat joko da.
- *Demokratikoki* antolatuta dago, hots, bere gainean ez du agintaririk, erabakiak denen artean hartzen dira...
- *Ez du dirurik irabazteko asmorik*. Baina honek ez du esan gura egiten diren ekintzak errentagarriak ezin izan daitezkeenik, are gehiago, elkartearen helburuetariko bat auto-finantzazioa izan ohi da, horrela burujabetza lortzen da eta.
- Ez estatuak ez Merkatuak ez dute elkartea kontrolatzen, dirua emanez zein ideologikoki menderatuz. *Burujabea* da.
- Espainiar estatuan, Konstituzioak hala esanda, legezkotzat hartzen da *Registro General de Asociaciones*-en (*Ministerio del Interior*-en menpe), probintziakoan edo Erkidegokoan izena emanda dagoenean (22. artikulua). Dena den, elkarte batek erabakiko balu erregistroan izenik ez ematea, horrek ez luke esan nahi legez kanpokoa denik, erregistratuta ez dagoela baino. Badago beste erregistro bat udaletan, maila horretako elkarteek erabil dezaketena, eta udal batzarretan parte-hartzeko aukera ematen diena.

- Elkarte bat ixteko *epailearen agindua* behar da, eta horretarako legez kanpoko helburuak dituela nabaritu edo frogatu behar da.
- Konstituzioak dioenaren arabera, Espainian bizi diren *guztiek*, espainiarrak izan edo ez, badute elkarre bateko kide izateko eskubiderik.

Ariketa: zergatik ez dira elkartetzat hartzen *Cáritas eta Gurutze Gorria* lako entitateak? Eman arrazoiak.

Hainbat elkarre mota dago, aldagai askori erantzuten diotenak. Koordenatu edo aldagairik garrantzizkoenak hauexek dira:

- *Eremua*, auzo mailatik hasi eta nazioartekora hel daitekeena.
- *Arloa*, ingurumena, eskubideak, bakea, lankidetzeta, osasuna, hezkuntza, kultura, aisialdia, gorputz soinketa edo kirola, auzo bizitza, kontsumoa, harremanak...
- *Ekintzaren hartzailera*, elkartekidea eta haren familia izan daitezke, sektore sozial zehatza (andreak, ijitoak, umeak, inmigranteak...) edo komunitate osoa.
- Egiten duen *lan mota*: ikerketa, aholkuak ematea, zerbitzuak eskaintzea, arazoaren aurreko sentsibilizazioa, esku-hartze zuzena, entitate publiko eta pribatuen lanen analisia eta ebaluazioa egitea gehiegikeriak alde batera uzteko edo salatzekeo ...
- *Beste entitate batzuekiko harremanak*: ez ohi ditu edo zenbaitetan baino ez da bestekin harremanetan sartzen; sarean egiten du lan, hau da, bere arloko edo eremuko beste batzuekin; federazio edo plataforma batean sartuta dago.
- *Formala edo informala izatea*. Barne antolaketari dagokionez, arautua edo ez arautua egotean eta kanpora begira erregistratuta egotean datza.
- Helburu zehatz bat lortzen dutenean desagertu egingo da, edo ez du *iraupena* mugatuta alde aurretik.

Ariketa: egin ezazu lauki bat emandako aldagai edo koordenatu horiekin eta bete ezazu zeure herrian dauden 10 elkarteren ezaugarriak.

4.4.2. Fundazioa

Hiztegiak dioenaren arabera, “interes publikoko erakunde bat da, nortasun juridikoz hornitua”. Erakunde horiek hirugarren sektorea osotzen zuten bakarrak izan dira XIX. mendera arte, nahiz eta batzuek *mezenasgoa* ere sektore horretan sartzen duten.

Mezenasgoa eta fundazioak zahar-zaharrak dira: Grezian, adibidez, Platonen Akademia izan zen fundaziorik ospetsuena. Baina, beste alde batetik, oinarri askotarikoak dituzte: mezenasgoa, nahiz eta irabazteko asmorik izan ez, komunitatean pentsatu barik eta, askotan, bestelako abantailak lortzeko egiten da (enpresek egiten dutena marketing teknikak erabiliz, artean edo laguntza sozialean ari direnean, esaterako, edo Errenazimentu garaian Elizak eta nobleek babes-ten zituzten artistak, euren izena gal ez zedin kasurako); ez da musu-truk izaten, hortaz. Fundazioak, ordea, beti eduki behar du denon onura begi-bistan.

1978.eko Konstituzioak fundatzeko eskubidea aitortzen zuen, eta eskubide hori 1994an arautu zen *Ley de Fundaciones y de Inventivos Fiscales a la Participación Privada en Actos de Interés General* delakoan. Bertan esaten zenaren arabera, fundazioa irabazi ekonomikorik lortzeko asmo gabeko erakundea da, sortzaileen borondatez ondarea iraunkorki esleituta edo lotuta daukana denon onurarako den helburua betetzearekin. Fundazioa fundatzailearen edo fundatzaileen borondatez zuzentzen da, Patronatu baten bidez, bere estatutuen eta legearen arabera. Fundazioen Erregistroan (Ministerio del Interior edo Barne Sailean) izena ematea derrigorrezkoa du legezkoa izateko.

Aspaldi honetan fundazioak aldatzen ari dira: alde batetik, kopurua etengabe igotzen ari da (hiru egunean behin bat sortzen da); beste alde batetik, gaur egun ez da pertsona bat edo talde txiki bat bere patrimonioa emateko kausa baten bila dabilena, alderantziz baizik askotan: pertsona talde handi batek, arazo batek sentsibilizatuta edo ondare baten etorkizunaz kezkatuta, dirua biltzen du fundazioa abian jartzeko. Azkenik aipatzekoa da, enpresa pribatuek fundazioak sustatzeko egiten duten lana, nahiz eta gehienetan politika horiek marketing operazioak besterik ez izan.

Fundazioak, elkarteak legez, laguntza sozialera, hezkuntzara, kulturara, aisialdira, kirolera, zientziara, osasunera, garapenera, ingurumenera, ondareen zaintzara eta beste helburu batzuetara zuzenduta daude, baina, elkarteak ez bezala, ekintzaren hartzaile ezin dira izan fundatzaileak berak, horien ondorengoak edo patronatukoak.

Ariketak: desberdin itzazu elkarteak fundazioetatik.

Elkarteekin egin duzun modura, zeure herriko edo inguruko 10 fundazio hartu eta sartu berauen gaineko informazioa zeuk egindako moteei buruzko lauki batean.

4.4.3. Gobernu Kanpoko Erakundea

Izen hori txit nortasun juridiko desberdina duten erakunde multzo bati ematen zaio. Horiatariko gehienak elkarteak dira. Ikusten denez, terminoa zehaztugabekoa da, dantza talde bati buruz zein Hirugarren Munduaz eta Bakeaz ari dien taldeei buruz berba egitean erabil dezakegula. Orduan, zeri deitzen zaio GKE? Bada, orokorrean, *dirurik irabazteko asmo barik eta ezein estaturekin lotuta ez daukan erakunde bati, garapena, ingurumena, bakea eta pertsona eskubideen arloetan diharduena Hirugarren edo Laugarren munduan.*

Baina, zer dira Hirugarren eta Laugarren Munduak? *Hirugarren Mundua* terminoa II. Mundu Gerraren ostean hasi zen erabiltzen, Lurra bloke politiko eta ekonomiko bitan banatu nahi zenean, hau da, mendebaldeko liberal-kapitalista eta ekialdeko sozialista. Baina horietan sartu ezinako beste bat zegoen: lurralde atzeratuena, gehienak Afrika eta Asian kokatuta, nekazari giroan bizi zirenak oraindik, kultura hiritarra oso urrun zeukatelarik. Herrialde horiek “azpigaratuak” eta “garapen bidean” zeudenen artean banatu ziren eta guztiek Hirugarren Mundua osatu zuten.

Gaur egun, behin bloke sozialista desagertuta eta Lehen Mundua eta Hirugarren Munduaren arteko desberdintasunak inoizko handienak direnean, lotsagarria da herri bat “garapenaren bidean” dagoela esatea, argi ikusten delako sistema ekonomikoak herrialde gehienak miseriara kondenatu dituela, beste batzuk ondo bizi daitezen; hau da, azpigarapena oinarritzko baldintza da (edo hala ematen du) sozietate “aurreratuenak” bizi daitezen, eta sistema ekonomikoak esaten duena sistema politikoek izenpetu egiten dute armaden eta itunen bitartez.

Gainera, beste marjinazio mundu bat sortu da: *Laugarren Mundua*, ez dena Afrikan, Asian edo Hego Amerikan bilatu behar, herri garatuenetako metropolietako auzo pobreenetan baino, nahiz eta aipatutako leku horietan eta antzinako lurralde sozialistetan ere badagoen, kontu eta planifikazio gabeko industrializazio politiken erruz.

Gobernuz Kanpoko Erakunde esamoldea Nazio Batuen Gutunean agertu zen lehenengoz 1945.ean. Izen hori emanda, aholkulari gisa egon ziren erakunde batzuk aipatu nahi izan ziren, pribatuak eta independenteak zirelako, beste batzuetatik bereizteko asmoz. Gaur egun ere aholkua eta laguntza eskatzen zaie gai sozialetan, legeren bat edo plangintza orokorren bat egin behar denean.

Espanian 80ko hamarkadatik aurrera arrakasta eskerga izan dute entitate horiek, nahiz eta azken 5 urteetan joera hori biziki moteldu den, jendea kritika zorrotzak egiten hasi zaienean: nondik lortzen dute dirua? diru horretatik, zenbat heltzen da helburura? zelan dago antolatuta erakundeak? eta abar. Itaun horiek egitea ez da arraroa, kontuan hartzen badugu GKEek erabiltzen duten kapitala (pertsonetan zein dirutan), izaten dituzten loturak (elizarekin eta sekta batzuekin ere bai batzuetan) edo batzuen joera edo lotura ideologikoak. Bestetik, pertsona askok kritika zorrotzak egiten dizkiete GKEei, langabezia handia egonda, boluntarioen lana erabiltzen delako, estatuei dagozkien ardurak euren gain harturik edo batzuek burututako zenbait ekintzak antzinako “ongintza” eta “karitate”aren kutsua dutelako; esate baterako “gala” izeneko ospakizunak, gabonetako “rastrilloek” eta umeentzako aita-amabitxiak aurkitzeko kanpainak.

Gainera, zenbat eta erakunde horiek boteretsuago bihurtu eta sustatzaile gehiago izan, orduan eta burokrazia handiagoa eta langile espezializatu gehiago behar ohi dituzte, nahiz eta horrek kideen etsipena eragiten duen, daukaten egitura zurrundu eta hierarkizatu egiten baita.

Aspaldi honetan Gobernuz Kanpoko Garapenerako Erakundeak ari dira sortzen (gaztelaniaz ONGD), mota berri bat, oso espezializatuak. Erakunde horiek hain dira garrantzitsu, ezen Nazio Batuek egin zuten azken Garapenerako Programan (PNUD, 1999) hauxe aitortzen zen: atzeratuta dauden herrialdeetan bertako gobernuek baino laguntza gehiago eman diezaieketela hiritarrei, baliabide hobeak dituztelako askotan.

Ariketa: eztabaida egin gelan. Gaia: Gobernuz Kanpoko Erakundeak. Gidoia: karitatea ala laguntza? Alde onak, alde txarrak, etorkizuna. Erabil ezazue prentsa, datuak emateko.

4.4.4. Self-help taldea

Izenburu horren barruan, ingelesezko *self-help* eta *self-care* taldeak sartuko ditugu, biak antzekoak direlako. Itzulpen traketsa eginik, norberaren burua laguntzeko edo elkarri laguntza emateko taldeak direla esan liteke:

Talde horiek ezaugarri komunak dituzte:

- Txikiak dira.
- Arazo bera duten pertsonak batzen dira bertara (Alkoholiko Anonimoak adibidez).
- Instituzioetatik ez dute nahi edo behar duten laguntza jasotzen.
- Lortu gura den helburua pertsonari zein sozietateari lotuta dagokio.
- Kideek eskubide eta abantaila batzuk dituzte taldekoak izateagatik, kanpokoek ez dituztenak (sindromerik edo gaixotasunik duten pertsonen tratamendu bereziak, bidaiak, debaldoko aholkularitza...).
- Bertan dihardutenak ez dira propio boluntarioak edo/eta izaten, euren kontzientzia solidarioak bultzatu ez dituelako, arazoa eurek etxean ikusi edo/eta jasanikoa izateak baino.

- Babes sozial handia ematen diete kideei: euren arazoa beste batzuek ere jasaten dutela ikustean, laguntza instituzionala eta profesionala hartzeko orduan nabaritu zuten erruduntasuna (gaixorik egoteagatik, etxeoentzat zama astuna izango zirelakoan...) baztertzean, zerbitzu hartzaileen eta emaileen paperak trukagarriak izatean (denak bizi direlako arazo kroniko batekin) eta, azkenik, bestela, baztertuta egongo ziratekeenei harreman sare iraunkorra izateko aukera eskaintzean.
- Antzeko bizipenak izatean, jendeak arazoei buruz berba egiteko aukera eta besteak entzutekoa ere badauka, ez da hain bakarti sentitzen. Gainera, arazoen aurrean makurtu ez diren pertsonak ezagutzen dira, eta horrek aurrera egiteko gogoia pizten du. Psikologiari dagokionez, sendatzaileak dira oso.
- Kanpoko laguntza profesionala ere behar izaten dute, informazioa, trebatzea, bitartekaritza eta laguntza tekniko eman diezaien. Profesional horiek boluntarioak edo kontratukoak izan daitezke.

Ariketa: aukera itzazu zeure herriko edo inguruko 3 self-help talde eta egiazta goiko ezaugarriak betetzen dituzten. Horrelako taldeek, ba dute alde txarrik? Zein?

4.4.5. Boluntarioak

Izen hori, nahi dutelako, elkartasun sentimenduak bultzatuta eta dirurik irabazteko asmo bari egiten lan dutenei ematen zaie. *Boluntario* mota bat *lankide* edo *kooperantearena* da, garapena lortzeko egitasmoetan lan egiten duena, gehienetan Hirugarren Munduko herrialde batean.

1985.ean Europako Batzordeak onartu egin zuen boluntarioen lanek badutela onurarik eta estatuei gomendatu egin zien lan horiek legeztatzea eta hobetzea (Ministroen Kontseiluak onartuta 85/06/21an). Urte berean, baina abenduan, Nazio Batuetako asanblada orokorrak, boluntarioen beharra sustatu eta bultzatzeko, abenduaren 5-a Nazioarteko Boluntarioaren Eguna izendatu zuen.

Boluntarioak eta boluntarioen lanak *ezaugarri* batzuk dauzkate:

- Pertsona heldua da, edozein adin edo sexutakoa (gazte, heldu, zahar), egiten duen lanerako prestakuntza jaso duena.
- Egiten duen beharraren bitartez sozietatea eraldatu nahi du.
- Duen azken helburua osoko garapena da.
- Boluntarioen lana hezkuntza informal mota bat da behar hori egiten duenarentzat, jasotzen duenarentzat zein erakundeko talde guztiarentzat.
- Lan horren bitartez, herritarrek euren erakundeek erabakitako politiketan eragile izateko aukera dute. Sistema demokratikoa indartzeko balio dute, beraz; hala uste dute nazioarteko erakundeek.
- Boluntarioaren lanak hartzaileari ematen diona ez dago ohiko bidez lortzerik zerbitzua ez delako, sentimendua baino, hau da, nor bere burua onartua eta ulertua sentitzea. Halaxe jazotzen da “Mugarik Gabeko Pailazoak” egiten duten lanari esker, kasurako.
- Gainera, langile horiek *feedback* prozesu baten eragileak dira, euren jatorrizko sozietateetan bizipenak kontatzean sentsibilizazioa eraginez eta arazo berriak detektatzen dituztenean haien berri emanez mundu garatuan.

Boluntarioen lanaren *modalidadeak* betetako eginkizunaren arabera bereizten dira, hartzai-
learen tipologiaren arabera, egun osoko edo tarte bateko dedikazioa den ikusita, herrian edo
atzerrian dauden kontuan hartuta eta egitasmoa bete arte lanean emango duten denbora ezagu-
tuta. Modalidade arruntenak gazteek betetzen dituztenak dira, atzerrian, egun osoko lanean, ga-
rapen egitasmo batean (eskola batean adibidez), hilabetetik hiru hilabetera, euren oporrei eteki-
na atereaz. DYA-n, adibidez, modalidadea bestelakoa da, herrian, sorospen ikastaro batzuk
eginda, egun batzuetan eta epe luzean egiten delako.

Ariketa: aukera itzazu hiru lan boluntario mota eta azter itzazu jakiteko zein modalida-
detakoak diren.

Lan boluntarioaren arriskuak:

- *Administrazio publikoak ordezkatzeari lanetan.* Lan boluntarioak estatu politiken eraginik eza edo ustelkeria ezkuta ditzake. Orduan, herritarrei oso gaitz egiten zaie politika horiek salatzea, boluntarioen eraginak estaltzen dituelako.
- *Kontratadun profesionalen lanpostua betetzea;* horregatik esaten da boluntarioek ezin dutela lanpostu espezializaturik bete. Baina, zer gertatzen da mediku, abokatu, albaitari, injineru, irakasle eta abarren kasuan adibidez, herrialde batera doazenean, hain justu, euren lana betetzen bertan ez dagoelako halako profesional nahikorik edo estatuak ezin dituelako haiek ordaindu?
- *Eskulan merkea bihurtzea* enpresetan, boluntarioak ez baitu soldatarik kobratzen. Horren kontra, egokiena gero ondo ikusiko den legea ondo ezagutzea da.

4.4.6. Ekonomia soziala

Kontzeptu hau XIX. mendearen amaieran sortu zen eta hain arrakasta handia izan zuen, ezen, 1900.ean Parisen egindako Erakusketa Unibertsalean, bere pabilioia eduki baitzuen. Ekonomia sozialak klaseen arteko borroka baztertzen du, sektore publikoa, pribatua (enpresa) eta langile elkarteak elkarrekin jardun dezaten bultzatuz, hirukotearen parterik ahulena (langilea) babeste-ko asmoz, horrela bai estatua eta enpresa ere garaile agertzen direlako eta etorkizun baketsu eta oparoa segurtatzen da. Asmoa ez da aberatsagoa izatea, aberastasunaren banaketa orekatuagoa eta bidezkoagoa egitea baino.

Ekonomia soziala propio praktikatzen duten erakundeak *kooperatibak* eta *mutualitateak* dira, euskal Hiztegi Entziklopedikoak honelaxe definitzen dituena:

Kooperatiba. Iz. Bazkide bakoitzaren eskubide eta eginkizunak berdinak diren eta irabaziak haien artean banatzen dituen enpresa-mota. *Arrasateko kooperatibak.*

Kooperatibismo. Iz. EKON. Agente ekonomiko eta sozialen kooperazioa defendatzen duen doktrina eta praktika. Ekoizle eta kontsumitzaileek, kooperatibetan elkarturik, ekoizpen –eta banatze– bideak kontrolatzea da helburua, soldatapekoak eta irabazi pertsonalak baztertze-ko asmoz.

>**ENTZ.** Bost dira kooperatibismoaren oinarritzko printzipioak: edonork bazkide izateko eskubide izatea, bazkide bakoitzak bere botoa izatea, kapitalari interes mugatuz ordaintzea, irabaziak bazkideen artean proportzionalki banatzea, eta bazkideei informazioa eta aholkuak ematea. (...)

Mutualitate. Iz. Interes eta arrisku berberak eragindako nahitaezko elkarteak, non irabazi-asmorik gabe partaide bakoitzak proportzionalki eta kuota aldakorren bidez bere zatia jartzen baitu. *Etxeko langileen mutualitatea.*

Mutualismo. Iz. 2. HIST. Proudhonek proposatutako sistema ekonomiko eta soziala. Nagusi "herriaren bankuan" eta "doaneko kredituan" aplikatu zuen: herriaren bankuak organismo autonomoa izan behar zuen, bere kapitala kapitalisten gaineko zergetatik aterako zen, eta kredituak oso interes baxuan emateko ahalmena izango zuen, langileriaren alde eginez."

Biak, kooperatiba zein mutualitate, sortu ziren XIX. mendean, sistema kapitalista klasikoaren alternatiba gisa. Gaur egun, lurralde aurreratuetan badaude ere, Gobernu Kanpoko Erakundeak herrialde azpigaratuetan bultzatzen ari dira produkzioa zein kontsumoa babesteko. Horra hor mikro-kredituen politika edo bidezko merkataritza gauzatzeko egiten diren ekoizleen kooperatibak.

Ariketa: aurkitu berba hauen gaineko informazioa: Proudhon, mikro-kreditu, kapitalismo, Arrasateko kooperatibak.

Baina ekonomia sozialean, honetaz gain, badago beste agente mota bat: *aurrezki kutxek* egindako lan soziala. Nahiz eta finantza-erakunde horiek (kutzak) gero eta bankuen antza handiagoa izan, sortu zirenean ez zuten irabazirik lortzeko asmorik eta lortutako mozkinak ongintzan erabili behar zituzten. Gaur egun ere, batzar orokorretan herriko ordezkariak izaten dituzte eta mozkinen zati bat egitasmo sozialean sartzen dute, esaterako, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren lan soziala udalekuak, erietxeak, hondartzetako sorosleak, beka... sustatzeko.


4.4.7. Bidezko Merkataritza

Kontzeptu hori herrialde pobreen kanpo zorra eta hango produktoreen bizi-mailarekin lotuta dago: nazioarteko merkataritzak daukan efektu bat hango ekoizlearen txirotze-prozesua da, enpresa handien interesak direla eta (ikus beheko eskema). Herrialde pobreak ahal duten guztia saltzera bultzatzen ditu kanpo zorrak; gainera, produkzioaren igoerak, nazio haien arteko konkurrentziak eta produktuaren kostuaren barruan ingurumenean izandako inpaktua sartuta ez egoiteak merke saltzera behartzen ditu.

Hau dela eta, solidarioen taldeak sortu dira, ekoizleekin harreman zuzenak dituztenak, bitartekaririk gabe, eta prezio duinak ordaintzen dizkietenak kanpoko produktu horiek (kafea, kakaoa, azukre-kanabera, edariak, jantziak, oihalak, artisautza-lanak esate baterako) ekoizterakoan, alde aurretik ordaintzen baita. Horrela, langileei soldata duina ordainduz eta andreen egoera hobetuz pertsona talde horiek lagundu ez ezik, inportatzen den produktuaren kalitatea hobetzea eta ingurumena jagotea ere lortzen da .


Ariketa: aurki ezazu Mercadeco erakundearen gaineko informazioa. Antola ezazu harako bisita edo bertako norbaiti egin beharreko inkesta. Hori benetako bisita edo elkarrizketa, edo simulazio legez egin dezakezu.

Eskema



4.5. MUGIMENDU SOZIALAK

Mugimendu horiek lankidetzan eta berdintasunean oinarrituriko lan-ekintzen era bat dira, eskubideak betetzeko eskakizunarekin kexa zabaltzen den unean sortuak.



Baina, banakoek bidegabekeria sentimendua badute eta hori zuzendu nahi badute, zergatik ez dira alderdi politiko edo presio-taldeetan sartzen, mugimendu sozialak sortu barik? Bada, Ibarrak arrazoi batzuk ematen ditu: injustizia talde-bizipen legez sumatzen dutelako, helburua lortzeko euren parte-hartzea derrigorrezko ikusten dutelako eta taldearen barruan sinpatia, onarpena, prestigio soziala edo baliabide bereziak aurkitzen dituztelako. Dena den, gure ustez, mugimenduok beste faktore bat dute: ohiko instantzien aurrean dagoen gero eta mesfidantza handiagoa.

Gaingiroki begiratuta, hamar mugimendu sozial nagusi aurki ditzakegu:

- Bakezalea eta antimilitarista.
- Langile mugimendua.
- Mugimendu feminista.
- Solidaritatearena eta kooperazioarena.
- Mugimendu ekologista.
- Auzokideen edo herrikideen mugimendua.
- Gazteen mugimendua.
- Nekazarien mugimendua
- Gay eta lesbianen eskubideen aldekoak.
- Globalizazio neoliberalaren kontrakoak.

Ariketa: saia zaitez aurretik ikusi dituzun sei elkarte, fundazio eta entitate goian aipatu-tako mugimendu sozial batean sartzen.

Horietatik, batzuk XIX. mendean sortu ziren, langile mugimendua esaterako; beste batzuk berriak dira, ekologismoa eta kooperazioarena kasurako eta, azkenik, beste batzuk agertu eta desagertuz dabiltza denboran zehar, bakezaleena, kasu. Baina denek dute ezaugarri komun bat: oso aldakorak dira, abagunearen arabera aldatu egiten baitira. Horrek hauxe esan nahi du: euren ezaugarriak egoeraren arabera aldatzen direla, hau da, informalki edo formalki egon daitezke antolatuta, instituzioei aurre egin diezaiekete, edo jokabide menekoa eta otzanagoa agertu haien aurrean; gainera, euren helburuak lortzeko, irudimena edo betiko metodoak erabil ditzakete...

Gehienetan, mugimendu sozialak kezka-iturri izaten dira estatuentzat, hutsune demokrati-koak agerian uzten dituztelako eta horregatik, hain zuzen, tresna erabilgarria dira hiritarrentzat. Horrek argi erakusten du mugimendu sozialean dauden pertsonen estatuen edo presio-taldean iritzia ez zaiela axola, sozietate osoarena baino.

Hainbat ekintza modu antola dezakete, lehen ikusi dugun legez. Arruntenak manifestaldiak ohi dira (20 pertsona baino gehiagoren bilerak kalean), Espainian legezkoak direnak, egin aurretik abisua ematen bada; osterantzean ez dute prozedura betetzen, nahiz eta legez kanpokoak izan ez. Gainera, bestelako ekintzak ere antolatu ohi dira: sinadurak batzea, enkarteladak, zerbaiten alde edo kontra gutunak bidaltzea, martxak, desobedientzia zibila (jai giroan ere egin daitekeena), parodiak, jaiak....

Mugimendu sozial bateko erakunde guztiak koordinatu egiten dira euren artean edo beste mugimendu batzuetako erakundeekin; sarritan militante berek batean baino mugimendu gehiagotan hartzen dute parte. Nahiz eta kutsu herrikoia izan, mugimenduek “goi mailako” militantzia edo sinpatiak ere lortu gura izaten dituzte (intelektualak, zientzialariak, politikoak...).

4.6. BIBLIOGRAFIA

- ANDE FUNDAZIOA: *Guía para voluntarios y para colaboradores sociales (objetores de conciencia)*, Madril: Gruppo Merydeis, 107 or.
- ARESO, D.: “Las ONG a examen”, *Quo* aldizkaria, 61. zkia, Madril: Hachette argitaletxea, 2000.eko urria, 14 or.
- CODINA i LANASPA, F.; eta DELTORO RODRIGO, E.: *Apuntes básicos para el animador juvenil*, Zaragoza: Librería Certeza eta Trajecte Associats, 1993, 111 or.
- “Beste merkatariak”, *ERAZ* aldizkaria, Durango: Durangaldeko Herri Komunikabideak, 282. zenbakia, 2000, 3 or.
- ESPINOZA VERGARA, M.: *Teoría y práctica del servicio voluntario*, Buenos Aires: Editorial Humanitas, 1982, 144 or.
- FRANCIA, A.; MATA, J.: “Dinámica y técnicas de grupos”, *Plan de formación de animadores*, Bloque 4: CCS argitaletxea, 1993, 240 or.
- GRAU, E.; IBARRA, P (koord): *Anuario de movimientos sociales. Una mirada sobre la red*, Icaria editorial, Betiko fundazioa eta Gakoa liburuak, Bartzelona/Donostia, 2000, 335 or.
- MARTÍ BOSCH, Ll.: *Por qué el voluntariado*, Madril: Editorial CCS, 2000, 187 or.
- SAENZ DE MIERA, A.: *El azul del puzzle*, Bartzelona: Ediciones Nobel S.A., 2000, 319 or.
- SANZ, P.: *Komunitate Garapenerako apunteak*, Oñati: Zuazola-Larraña Institutua.
- SCHVARSTEIN, L.: *Psicología social de las organizaciones*, Buenos Aires: Paidós, 1991, 273 or.
- ZZAA: *La sociedad del desempleo: Cristianisme i justicia*, 1989, 173 or.
- *Diccionario de historia y política del siglo XX*, Madril: Tecnos, 2001, 742 or.
- *Euskal hiztegi entziklopedikoa*, Donostia: Klaudio Harlutzet Fundazioa, 1995, 8 liburuki.
- *Politika Hiztegia*, Donostia: Ediciones vascas, 1980, 4 liburuki.
- *The Wordsworth Encyclopedia*, Danimarka: Helicon Publishing Ltd, 1995, 5 liburuki.

Legeen esparrua

5

AURKIBIDEA

5. LEGEEN ESPARRUA	67
5.1. Zer da legea? Lege motak.....	69
5.2. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.....	70
5.3. Espaniako Konstituzioa.	75
5.4. Gizarte Zerbitzuen Legea	79
5.5. Boluntarioei buruzko Legea	82


5.1. ZER DA LEGEA? LEGE MOTAK

Hasi baino lehen ariketa hau egingo dugu:

Ariketa: elkarte baten estatutuak, legeak al dira? Eman zure erantzunaren arrazoiak eta saia zaitez taldean *lege* kontzeptua definitzen.

Legea *araua* da, lurralde bateko hiritar guztiak behartzen dituen, eurek ezagutu ez arren ere. Mendebaldeko estatuetan antzinako eta gaur eguneko legeak jatorriaren arabera bereizten dira: antzinakoak goi mailako botereek, estatuko botere guztiak batuta zeuzkatenez, ezarrita zeuden (jaun laikoek, elizakoek eta monarkek, sarritan legeek jainkozko jatorria zutela esanez); egun, ordea, Zuzenbidezko Estatu deitzen diren horietan, legeak egiteko boterea herria ordezkatzeko duen *Batzar edo Parlamentu* batek dauka.

Legeak *hierarkikoki* antolatuta daude, hau da, orokorretatik zehatzetara. Euren artean ezin da kontraesanik izan, hau da, herri batekoak dioena ezin izan daiteke konstituzioak dioenaren kontrako. Ikus dezagun Espainiako kasuan hierarkia hori:



Edozein estatutan berez legegilea ez den botereak ere egin ditzake legeak. Horietatik inportanteenek *dekretu* izena dute. Arruntenak gobernuak, hau da, betearazleak, salbuespenetan egindakoak izaten dira (*lege-dekretu edo errege-dekretua*), funtsean erregelamenduak dira, baina lege forma hartu dutenak.

Itunak, hitzarmenak eta aldarrikapenak ere kontuan hartzeko modukoak dira legeen esparruan, benetako legeak izan ez arren, parte bi edo gehiagoren artean egindako akordioak direlako. Horiek estatuaren barruan (Gizarteratzeko Hitzarmenak kasurako) edo nazioartean buru daitezke.

5.2. GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALA

Hitzaurrea

Kontuan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdinean eta ukaezinetan oinarritzen direla;

Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutiستهaren ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak jazo izan direla; eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia orotatik aske, adierazpen eta sinesmen-askatasuna izango dituen munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren helburu nagusitzat;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakia aurki ez dadin tirania eta zapalkuntzaren kontrako azken irtenbidea den matxinadara jo beharrenean;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela ere herrialdeen artean harreman lagunkoiak bultzatzea;

Kontuan izanik Nazio Batuetako kide diren herriek gizakiaren oinarrizko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dutela Agirian; eta, askatasunaren ikuspegi zabalago baten barruan, gizarte aurrerakuntza sustatzea eta bizitza-maila jasotzea erabaki dutela;

Kontuan izanik Estatu Kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarrizko eskubide eta askatasunaren begirune orokorra eta eraginkorra ziurtatzeko hitza eman dutela;

Kontuan izanik emandako hitz hori osotasunean betetzeko garrantzi handikoa dela eskubide eta askatasun horiek berdinean ulertzea;

Batzar Nagusiak giza eskubideen aldarrikapen unibertsal hau egiten du

Herri eta nazio guztiek izan beharreko jomuga legez, bai norbanakoek eta bai erakundeek. Aldarrikapen honetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun horien begirunea bultzatzen dezaten irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez eta, bestetik, nazio eta nazioarte mailan arian-arian neurriak hartuz, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezkeen ziurtatzeko, bai elkarkide diren estatuetakoa herrien artean eta baita horien eskumenpean dauden lurraldeetan ere.

1. atala

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu behar dute.

2. atala

Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politika edo bestelako iritzi, sorteri edo gizarte jatorri, ekonomi maila, jaiotza edo beste ezelako gorabeheragatik.

Ez da begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burutasun-mugak dituen.

3. atala

Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

4. atala

Inor ez da izango besteren esklabo edo uztarpeko; erabat debekatuta dago esklabotasuna eta esklaboak salerostea.

5. atala

Ezin daiteke inor tortura, ezta inori zigor edo tratu txar, anker edo iraingarririk eman ere.

6. atala

Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitor diezaioten eskubidea.

7. atala

Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legeen babesa izateko eskubidea. Denek dute aldarrikapen hori hausten duen edozein bereizkeriaren eta bereizkeria horren eragileen aurrean babes berbera izateko eskubidea.

8. atala

Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarrizko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurtsio eraginkorra jartzeko eskubidea.

9. atala

Inor ezin izango da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

10. atala

Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikierarik gabean jendaurrean berba egiteko eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubide eta betebeharrak erabakitzeke, nahiz bere kontrako salaketa penalak aztertzeke.

11. atala

- Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, legez eta jendaurreko epaiketan errudun dela frogatzen ez den bitartean. Epaiketan bere burua defendatzeko berma guztiak ziurtatuko zaizkio.
- Egintzak edo lan-uzteak izandakoan, herrialdeko edo nazioarteko legeriaren arabera delitu ez baziren, ezin izango da inor kondenatu. Delitua egitean ezargarri den zigorra baino larriagorik ere ezin ezar dakioko inori.

12. atala

Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan esku sartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du esku sartze edo eraso horien kontra legeen babesa izateko eskubidea.

13. atala

- Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa.
- Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

14. atala

- Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea.
- Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzirako egintza baten kontra, ezta Nazio Batuen helburu eta irizpideen kontrako egintzak direla ere.

15. atala

- Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.
- Inori ezin ken dakioke herritartasuna arrazoirik gabe, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea uka ere.

16. atala

- Gizonek eta emakumeek, ezkontzeko adinetik aurrera, ezkontzeko eta familia eratzeko eskubidea dute, arraza, herritartasun edo erlijioagatiko ezelako muga barik; eta ezkontzari dagokionez, eskubide berberak dituzte bai ezkontuta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere.
- Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.
- Familia da gizartearen oinarri jatorra eta berezkoa, eta Estatuaren eta gizartearen babesa izateko eskubidea du.

17. atala

- Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean
- Arrazoirik gabe, ezin ken dakioke inori bere jabegorik .

18. atala

Pertsona orok pentsamendu, kontzientzia eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta bai norbere erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, jardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

19. atala

Gizabanako guztiek dute iritzi eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen ditu erlijioa eta sinesmena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren iritziengatik ezelako oztopo edo trabarik ez jasateko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta iritziak mugarik gabe eta edozelako adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.

20. atala

- Nornahik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea
- Inor ezin behar daiteke elkarte bateko kide izatera.

21. atala

- Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean edo libreki aukeratutako ordezkarien bitartez.
- Pertsona orok du berdintasunean norbere herrialdeko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.
- Herriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oinarria; borondate hori aldian-aldian egingo diren benetako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeok bozketa orokor eta berdinez, eta isilpeko boto bidez egingo dira, edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez.

22. atala

Pertsona orok ditu, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantza izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura mailako eskubideak ase izatekoa.

23. atala

- Pertsona orok ditu lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lan-baldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren kontrako laguntza jasotzekoa.
- Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari berbera jasotzeko eskubidea.
- Lanean ari denak bidezko lansaria eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bai bere familia, giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa. Horretarako lansaria aski ez bada, gizarteko laguntzaren bidez osatuko da.
- Pertsona orok du, norbere interesen alde egiteko, sindikatuak eratu eta sindikatuko kide izateko eskubidea.

24. atala

Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izatekoa.

25. atala

- Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diona, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku-sorospena eta zerbitzu sozialak; eta baita lanik, gaixotasun, elbarritasun, alarguntasun eta zahartzarorako edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere.
- Amek eta umeek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Ume guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.

26. atala

- Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza doanekoa izango da oinarrizko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezko izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goi-mailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.
- Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, tolerantziaren eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen jarduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan.

- Gurasoek lehentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko.

27. atala

- Pertsona orok ditu elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko eskubidea, artelanez gozatzekoa, eta zientziaren aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzekoa.
- Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egile diren pertsona guztiek dute horregatik dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea.

28. atala

Pertsona guztiei dagokien eskubidea da, Aldarrikapen honetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen gizarte mailako eta nazioarteko ordena ezartzea.

29. atala

- Pertsona orok komunitatearekiko betebeharrak ere baditu, komunitatea baita bere nortasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra.
- Pertsona orok, gainontzeko herritarren eskubideen eta askatasunaren begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko eskakizunak betetzeko, legez ezar daitezkeen mugak baino ez ditu izango dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan.
- Eskubide eta askatasun horietaz ezin izango da inor baliatu Nazio Batuen helburu eta irizpideen kontra.

30. atala

Aldarrikapen honetan jasotako ezertan ezin izango da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deusatzeko ekintzak edo jardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik.

Ariketak:

- Azter ezazu hitzaurrea: zergatik egin zen Aldarrikapen hori?.
- Aurki ezazu dokumentuaren gaineko informazioa: noiz egin zen? nork egin zuen? non?.
- Egin artikuluen azterketa: sailka itzazu gaien arabera; aukera itzazu komunitatearen garapenean funtsezkoak direnak batetik eta, bestetik, gizarte eta kultur animazioaren esparruan sartzen direnak.
- Nori zuzenduta daude eskubideok? (banakoari, taldeei, andre edo gizonei...).
- Zer gehiago sartuko zenuke dokumentuan?.
- Zer atera edo aldatuko zenuke?
- Zein bide erabiltzen da eskubide horiek betetzen diren ala ez jakiteko? Eta, betetzen ez badira, zelan zigortzen da talde edo herri hori?

5.3. ESPAINIAKO KONSTITUZIOA¹

Espainiar Konstituzioaren egitura (1978):

- Hitzaurrea
- Aitzin titulua
- I. Titulua: oinarrizko eskubide eta betebeharrak
 - *Lehen kapitulua*: espainol eta atzerrikoei buruz
 - *Bigarren kapitulua*: eskubide eta askatasunak
 - *Hirugarren kapitulua*: politika sozial eta ekonomikoaren gida oinarriez
 - *Laugarren kapitulua*: askatasunen garantia eta funtsezko eskubideez
 - *Bosgarren kapitulua*: eskubide eta askatasunen etendurez
- II. Titulua: Koroaz
- III. Titulua: Gorte Orokorrez
 - *Lehen kapitulua*: ganbarez
 - *Bigarren kapitulua*: legegintzaz
 - *Hirugarren kapitulua*: nazioarteko itunez
- IV. Titulua: Gobernuz eta administrazioaz
- V. Titulua: Gobernua eta Gorte Orokorren arteko harremanez
- VI. Titulua: botere judizialaz.
- VII. Titulua: ekonomia eta ogasuna
- VIII. Titulua: estatuko lurralde eratzeaz
 - *Lehen kapitulua*: oinarri orokorrak.
 - *Bigarren kapitulua*: tokiko administrazioaz.
 - *Hirugarren kapitulua*: Erkidego Autonomoez.
- IX. Titulua: Konstituzio auzitegiak
- X. Titulua: Konstituzioaren aldaketaz
- Xedapen gehigarriak
- Behin-behineko erabakiak
- Xedapen derogatzailea
- Azken xedapena

(1) Ez dugu dokumentu osoa ikusiko, gaiari zuzenki loturiko atal batzuk baino. Berdin egingo da beste dokumentuekin.

Ariketa: Konstituzioaren egitura aztertu eta gero, saia zaitez orain irakurriko dituzun artikulua zein tituluri dagozkion igartzen. Artikuluetan eta giza eskubideen Aldarrikapenean esaten dena aldera itzazu, biak bat datozen aztertuz.

1. artikulua

1. Espainia Eskubidezko Estatu sozial eta demokratikoa da, eta bere balio nagusiak lege araugintza, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa dira.

7. artikulua

Langile sindikatuek eta enpresarien elkarteek eurei dagozkien interes ekonomiko eta sozialen defentsaren alde jokatzeko dute. Haien sormen eta ekintzen arketak libre edo askeak dira Konstituzioa eta legearen begirunearen barruan. Halaber, barne egiturak eta jarduerak demokratikoak izan behar dituzte.

10. artikulua

2. Konstituzioak onartzen dituen oinarriko askatasun eta eskubideei dagozkien arauak honela adieraziko dira: Giza Eskubide Orokorren adostasunez eta berarekin dagozkien tratatu eta nazioarteko akordioen arabera, horiek Espainiak berretsiak baititu.

14. artikulua

Espainolak berdina dira legearen aurrean, eta ezin da diskriminaziorik onartu jaiotza, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialengatik.

15. artikulua

Pertsona guztiek bizitza eta osotasun fisikoa eta moralerako eskubidea dute, eta inoiz ezin dira torturatu, ez eta zigor edo tratu anker eta lotsagarrien menpe eduki. Heriotza zigorra baztertuta geratzen da, gerrateetarako Armadako zigor legegik erabakitzen dutena, salbu.

16. artikulua

1. Pertsonen eta komunitateen askatasun ideologiko, erlijioso eta kultuarena garrantzitzen da.(...)

17. artikulua

1. Edozein pertsonak askatasun eta segurtasun eskubidea du. Inori ez zaio askatasunik galaraziko, artikulua honetan agintzen dena betetzen ez baldin bada eta beste jazoeretan legeak adierazten duen eran.

21. artikulua

1. Bakean eta armarik gabe biltzeko eskubidea aitortzen da. Eskubide horren erabilerarako ez da aurretiaz baimenik behar.

.../...

.../...

22. artikulua

1. Elkartze eskubidea aitortzen da
2. Delitutzat hartzen diren bideak edo helburuak erabili edo lortu nahi dituzten elkargoak ilegalak dira.
3. Artikulu honen babesean sorturiko elkarteak erregistroan ezarri behar izango dira, zabalkunde helburuetarako bakarrik.
4. Elkargoak ezezta edo galaraz daitezke epaile baten erabaki arrazoituriko eta irmo baten bitartez.
5. Isilpeko eta izaera paramilitarreko elkarteak galarazten dira.

27. artikulua

1. Guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna aitortzen da.

28. artikulua

1. Guztiek dute libreki sindikatuan izena emateko eskubidea. (...) Askatasun sindikalak sindikatuak sortzeko eskubidea eta aukeran kidezkera hartzen ditu barne, baita sindikatuak konfederazioak eta nazioarteko erakunde sindikalak sortzeko, eta horietan izena ematekoa ere.

34. artikulua

1. Fundatzeko eskubidea aitortzen da legearen arabera, onura orokorreko helburuak izanez gero.

35. artikulua

1. Espainol guztiak lan egiten behartuta daude; lan aukerarako, profesio eta bizibide aukera librerako ere badute eskubiderik; baita lanaren bidezko aurrerapenerako eta euren familien beharizanetarako nahikoa den soldata kobratzeko ere, sekula ere sexu arrazoiengatik bereizkeriarik jasan barik.

41. artikulua

Botere publikoek hiritar guztientzat gizarte-segurantza delakoaren erregimen publikoa mantenduko dute, beharizan egoeretan eta langabezia garaian batez ere laguntza eta gizarte prestazioak bermatzeko. Laguntza eta bestelako prestazioak libreak izango dira.

43. artikulua

1. Osasuna babesteko eskubidea aitortzen da
2. Botere publikoei dagokie osasun publikoa antolatzea eta babestea, beharrezko neurri prebentiboen, zerbitzuen eta prestazioen bitartez. Horretarako, legeak ezarriko ditu guztien eskubide eta betebeharrak.

.../...

.../...

3. Botere publikoek osasun hezkuntza, heziketa fisikoa eta kirola sustatuko dituzte. Modu berean, aisialdia era egokian erabiltzeko erraztasunak emango dituzte.

44. artikulua

1. Botere publikoek kultura eskuratzea babestu eta sustatuko dute, hori denon eskubidea baita.

2. Botere publikoek zientzia eta ikerketa zientifiko eta teknikoa bultzatuko dituzte denon onurarako.

45. artikulua

1. Denek daukate pertsona gisa garatzeko ingurumen egokia izateko eskubidea eta hura zaintzeko betebeharra.

2. Botere publikoek, berezko baliabide guztien zentzuzko erabilpena zainduko dute, bizitza kalitatea hobetzeko eta babesteko, eta ingurunea defendatzeko eta berreskuratzeko, behar-beharrezkoa den guztion elkartasunaren laguntzaz.

3. Goiko atalean ezarritakoa urratzen dutenei zigor penalak edo administratibokak ezarriko zaizkie, legeak esaten duen moduan; halaber, eraginiko kalteak ordainaraziko zaizkie.

46. artikulua

Botere publikoek Espainiako herrien ondare kulturala, artistikoa eta historikoa, eta hori osotzen duten ondasunen aberastea sustatuko eta zaintzea bermatuko dute, horiek edozein erregimen juridiko eta titularitate izanda ere. Ondare horien kontra egindako erasoak lege penalak zigortuko ditu.

47. artikulua

Espainol guztiek dute etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea. (...)

48. artikulua

Botere publikoek baldintzak sustatuko dituzte gazteek libreki eta era eraginkorrean har dezaten parte garapen politikoan, sozialean, ekonomikoan eta kulturean.

49. artikulua

Botere publikoek minusbaliatu fisikoen, sentsozialen eta psikikoen aurrikuspen, tratamendu, errehabilitazio eta gizarteratze politika burutuko dituzte; haiei behar duten zainketa berezia emango diete, eta bereziki babestuko dituzte minusbaliatuak, Titulu horrek hiritar guztiei aitortzen dizkien eskubideak eurek ere izan ditzaten.

50. artikulua

Botere publikoek hiritarren askitasun ekonomikoa bermatuko dute hirugarren adinean, pentsio egoki eta aldian-aldian eguneratutakoen bidez. Halaber, eta etxekoan

.../...

.../...

premiez aparte, haien ongizatea sustatuko dute, aisialdia, kultura, etxebizitza eta osasun arazo bereziak jagongo dituen zerbitzu sozialen sistema baten bidez.

51. artikulua

Botere publikoek erabiltzaileen eta kontsumitzaileen defentsa bermatuko dute, haien bidezko interesak, segurtasuna eta osasuna babestuz, prozedura eraginkorren bidez.

Ariketak:

- Labur ezazu elkarte eta fundazioez esaten dena.
- Konstituzioa eta Gizarte eta Kultur Animazioa: zein lotura dago bien artean? (azal ezazu artikuluz artikulua).

5.4. GIZARTE ZERBITZUEN LEGEA

Urriaren 18ko 5/1996 Legea, Gizarte Zerbitzuen

Zioen azalpena

Gizarte Zerbitzuei buruzko 1982ko Euskal Legea izan zen Espainiako Konstituzioan eta Euskal Herriko Autonomi Estatutuan jasotako eginkizunak eta printzipioak garatu zituen lehenengoa. Lehenengotik, 9, 14, 40 eta 50. ataletan esandakoa garatu zen, eta bigarrenetik, 9.1 eta 2-d) ataletakoa. Lege horrek, bada, berrikuntzak ekarri zituen eremu juridikoan, eta berak zabalduak ildotik sortu ziren beste autonomi elkarteetan gaur indarrean dauden arlo horretako arauak.

Aipatutako lege horrek, indarrean egon den denboran, antolamendu koherentea eman die zerbitzu sozialei, lehen halakorik ez zuten eta. Aldi berean, zerbitzu sozialon kudeaketa politikoa eta administratiboa ulertzeko era moderno bat ere ekarri du legeak. Ondorioz, herritarren eskubide bihurtu dira zerbitzu sozialak, eta nabaria da baztertua gelditu dela lehendik zahartuta zegoen iritzia, halako prestazioak erakunde ongileen esku zeudelako iritzia, alegia.

Hala ere, Gizarte Zerbitzuei buruzko 1982ko Legea indarrean sartu zenetik iraganiko denbora eta egungo egoera kontuan hartuta, arau hori aztertzea komeni da. Eta, gainera, alde batera utzi ezinezkoa da. Kontua ez da hein batean edo bestean aldatu behar dela, arlo horretan goitik beherako berrikuntza juridikoa lortu behar dela baino.

Gizarte Zerbitzuei buruzko maiatzaren 20ko 6/1982 Legearen zioen adierazpenean azaltzen denez, legea idatzi zutenak “legegintzarako zuhertasunez” aritu ziren, baina “geroan aterabide gogobetegarriagoetarantz aurrera egitearen kaltetan gabe”.

Hala, Euskadiko zerbitzu sozialak arautu nahi izan ziren 6/1982 Legearekin, nahiz eta “zerbitzu sozialak” kontzeptuaren definizioa behar bezain zehaztuta egon ez. Izan ere, ez zen ondo bereizten beste prestazio batzuetatik; esaterako, “gizarte”-prestazioetatik edo “laguntza”-prestazioetatik. Horrez gain, ia egon ere ez zegoen halako zerbitzuak eskaintzeko sarerik.

Esan behar da, alabaina, legegileek orduan borondate onaz ekin arren, euskal gizartearen bilakaera ez zela artean iritsi gaur eguneroko kontua diren zerbitzu sozial zabal guztiak eskatzera.

Hobeto edo txartotxoago beteko dira zerbitzuok gaur egun, baina euskal herritarren kulturaren muinean sartu dira benetan ere.

Gizartean jazoriko aldaketek, berebiziko garrantzia zuten hainbat gertakizun izan baita, halabarrezko egin dute 1982ko legearen testua aldatzea gehiago luzatu gabe.

Gertakizun horietako bik gizartean eta ekonomian dute beren eragina. Bata, Euskal Herrian langabeziak izan zuen hazkundera. Inoiz lehenago bizi izan ez den moduko krisia jasan du industriak, eta birmoldaketak etorri dira hortik, ondorioz, Autonomi Elkartean langabeziaren arazo larriagotu egin da. Horixe da babes sozialik ezaren arrazoi nagusia. Bigarren egoerari erreparatzen badiogu, Euskadiko hazkunde begetatiboa hutsa dela ikusiko dugu. Horrekin batera, zahartzaroa gehiago luzatu dela kontuan hartzen badugu, biztanleria arian-arian gero eta zaharrago bihurtzen ari da. Beraz, hirugarren adinean aurkitzen direnentzako prestazio tekniko bereziak gora eta gora doaz.

Ekonomian eta bizitza sozialaren eremu guztietan gero eta handiagoa den emakumeen protagonismoa, horiek lan-merkatura sartu izana ere, garrantzi handikoa izan da, eta beharrezko egin da gizarte eta erkidego zerbitzuen sistema aurreratua.

Era berean, garrantzizkoak dira gure Autonomi Elkartean sozietate-alorrean dagoen elkartesare zabala eta boluntarioen erakundeek laguntza sozialaren eremuan gero eta biziagoa duten parte-hartzea.

Azkenik, bada beste gertakizun bat ere, juridikoa berau: lurralde historikoei buruz 1983an argitaratutako legearen ondorioz sortutako egoera, alegia. Euskal erakundearen sarea arautzen da hor, bai antolaketari dagokionez, bai garrantzi txikiagokoa ez den finkatzeari dagokionez ere.

Lege horren zioen adierazpenak eta I. idazpuruan mugatutako eremuak, izan ere, higadura sakonak jasan behar izan dituzte sozietatearen bilakaerak eraginda. Eta eragin horri gehitzekoak dira zerbitzu publikoen sare nagusitik bereziak eta berezkoak diren zerbitzu sozialak ere, gero eta zehatzagoak dira eta.

Orain aldatzen den legearen gorputz-enborra II, III eta IV. idazpuruak ziren; hau da, eskumenak agintzen zituena, zuzendaritza, aholkularitza eta partaidetza organoak zehazten zituena eta finantzaketari buruzkoa, hurrenez hurren. Baina, LHL (Lurralde Historikoen Legea) aldarrikatu ostean egokitu eta eratu egin behar ziren.

Lege horrekin bada, LHLk lurraldeetako erakunde bakoitzari egotzitako eskumenak zedarritu nahi dira, horien banaketa zehaztuz. Eta, batez ere, berariaz esleitu gabe dauden jarduerak aitortu nahi dira.

Hartara, plangintza, programazioa, kontrola, eta abar esaten denean, muga zehaztu gabeko kontzeptuak direnez, ezinbesteko da gero arau berriak sortzea, LHLren legegileek onartutako konponbidea argitzeko.

Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen Arteko Harremanei buruzko Legeak 7c) ataleko lehenengo eta bigarren ataletan dioenez, foru-erakundeei dagozkien Autonomi Elkarte osorako erakundearen legeak gauzatzeko eskumenak, eta bakoitzari bere lurraldearen barruan. Zerrenda horretako arloetakoak dira beren eskumenak: laguntza sozialak, erkidegoaren garapena, emakume, ume, gazte eta hirugarren adinekoekiko politika, aisia eta atsedenaldea. Hala ere, Autonomi Elkarte osorako erakundeek ez dute eragozpenik izango zuzenean jardun behar dutenean.

Toki-Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 1985eko Legea ere zerbitzu sozialen gaineko eskumenak banatzeaz arduratu zen. Hain zuzen, 25.2 ataleko k) puntuan, udalek bete beharreko eskumenen artean hauxe sartzen dute: “zerbitzu sozialak eta sustapenerako eta berriro gizarteratzeko zerbitzuak betetzea”. Lege horretako 26.1 ataleko c) zatian, bestalde, 20.000 biztanle baino gehiagoko udaletan zerbitzu sozialak bete behar direla dio.

Idea eta printzipio horiek islatu nahirik egin da egin ere oraingo lege hau. Zazpi titulu, hiru xedapen gehigarri, indargabetzeko xedapen bat eta hiru azken xedapen ditu.

Lege horren helburua ez da prestazio batzuk emango direla bermatzea. Hori 6/1982 Legean aipatzen zen. Orain, ostera, herri erantzukizuneko sistema bat oinarri dela, eskubide bat antolatuta, egituratu, sustatu eta bermatu nahi da, herritarrek zerbitzu sozialak jasotzeko duten eskubidea, hain zuzen.

Gizarte-zerbitzuak esaten denean adierazitako kontzeptuaren barruan baliabide, jarduera, prestazio eta ekipamendu multzo bat sartzen da, baina guztiak ere antolatuta. Hau da, babes sistema berezia dira zerbitzu sozialok. Segurantza sozialak ematen duen sistematik diferentea, baina hori ere herri-erantzukizuneko da, bermatuta dago eta biztanle guztientzat da, norbanakoak eta giza taldeak babesteaz gainera, Euskal Autonomi Elkartearen ekonomia eta enplegua, batez ere lan-merkatuan sartzeko zailtasunik handienak dituzten giza taldeena, garatzen lagunduko duena.

Sistema horrek, antolatuta egonik, helburu bi ditu. Batetik, “ongizate-estatuan” lortutako mailari eutsi eta maila hori hobetu nahi du. Horretarako, gogor zaindu behar dira ongizate-estatuaren zutabeak, eta oraindik ere gabezia larriak dituzten biztanle-taldeentzako babesa lortu behar da herri-erantzukizunpean. Bigarren helburua, bestalde, premiarik larrienei laguntza eta babesa emango zaiela bermatzea da, eta, horretarako, bereizketa positiboa egin behar zaie txartoen daudenei eta sozietateak baztertuta ditueni.

Legearen I. tituluan, hasteko, xedapen orokorrak jaso eta legearen xedea zehaztu egiten dira. Xedea, hain zuzen, herritar guztiek zerbitzu sozialak jasotzeko duten eskubidea sustatu eta bermatzea da, eta horretarako, herri-erantzukizuneko sistema bat antolatu eta egitaratuko da. Gainera, zerbitzu sozialetako sistemak gidari izango dituen printzipio nagusiak ere hortxe zehazten dira: herri-agintarien erantzukizuna, elkartasuna, berdintasuna, unibertsaltasuna, aurrezaintza, integrazioa, normalizazioa, herritarren partaidetza, plangintza, koordinazioa, lankidetzeta eta desdiratzea.

Legearen II. tituluan, bestalde, zerbitzu sozialetako sistemaren antolamendua lantzen da, eta, bai teoriarik eta bai praktikan, eraginkortasunik gehien izan duen sailkapenari eman zaio behinbetiko indarra: alde batetik, zerbitzu sozial bereziak jarri dira, eta bestetik, oinarritzko zerbitzu sozialak, eta zehaztuta utzi dira talde bakoitzari dagozkion egitekoak. Hurrengo, III. tituluan, udalei eta lurralde historikoetako foru-erakundeei beren eskumenak egotzi zaizkie.

Legean jasotako zehaztasun horiekin, ahal denik eta argien banatu dira erakunde bakoitzari dagozkion eskumenak. Eta egintza horrek berebiziko berrikuntza dakar bai administrazioan eta bai arlo juridikoan, hain zuzen ere, ez 6/1982 Legeak eta ez Toki-Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legeak erakunde bakoitzari dagozkion zeregin konkretuak zehazten ez baitituzte, eskumenetan parte hartzeko duten maila baino.

Legeak, III. tituluko hurrengo ataletan, administrazio bakoitzaren eskumenak mugatzen ditu zehatz-mehatz. Eta 12, 13 eta 14. atalak erabiltzen ditu udalek bete beharreko zerbitzuak xeheki azaltzeko; horrela, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 25. atalean zabal jasotako agindua gauzatzen da.

Legearen IV. tituluaren ondoren, herritarrek zerbitzu sozialetan parte hartzeko bideak antolatzeko modua arautzen da, baita horietaz kontsulta egitekoa ere. Horretarako, zabaldu egiten da partaidetza demokratikorako bermea. Horixe da, izan ere, aurreko legetik bertatik, zerbitzu sozialen euskal sistemak oinarrian duen printzipioa, halaxe agertzen baitu sozietate ongizaterako kontseiluen, partaidetza-organoen eta zerbitzuak betetzen dituzten pertsonen zuzenezko partaidetzak.

1982ko testuan ohart eman ez zirenez, berrikuntzak sartzen ditu V. tituluak, baimenak, homologazioa, itunak eta ikuskapena arautzen dituelako. Horretarako, orain sortutako sistema irekiagoa izango da, ekimen pribatuak ere zerbitzu sozialak ematen parte har dezakeelako, maila egokiari eutsiko zaiola bermatuz.

V. titulu horretan beste berrikuntza bat ere jasotzen da, gizarte-boluntarioak eta dirurik irabazteko xederik gabeko erakundeak sustatu behar direla azpimarratzen baita, bai eta arautzen ere ekimen pribatuaren parte-hartzea gizarte-zerbitzugintzan. Guztiarekin ere, gai horri buruz, arau zehatzagoak ezarri ahal izango dira beste lege batzuetan.

VI. tituluaren hiru puntu jasotzen dira: administrazio-maila bakoitzaren eskumenak finantzeko irizpideak eta bideak, finantzaketarako lankidetzak eta erabiltzaileek finantzaketan duten parteak.

Sistema horretan, halaber, galduan emandako dirulaguntzen ordez, ordain-itunak egingo dira arian-arian, kudeaketan parte hartzen duten eragileen artean.

Amaitzeko, VII. Titulua. Zigor-jarduera guztiak legearen barruan bete behar direnez nahi-taez, arau-hausteen eta zigoren zerrenda finkatzen da bertan, segurtasun juridikorik estuena zainduz, ikuskatzailetzaren lana benetan eraginkorra izan dadin. (...)

Ariketa: egizu goiko dokumentuaren iruzkina puntu hauek ondo aztertuz: noiz egin da legea? zergatik? zer aldaketa dakar? zein dira punturik inportanteenak?

5.5. BOLUNTARIOEI BURUZKO LEGEA²

Zioen adierazpena

Euskal Autonomia Erkidegoan, arazoei aurre egin ahal izateko jendea elkartzeko ohitura handia izan da beti, eta aspaldi hasi ziren sortzen boluntario antolatuen mugimenduak.

Hainbat eta hainbat erakunde aspalditik ibili izan da musu-truk lanean herritarrek dituzten behar frankori aurre egiteko, komunitatean, era guztietako zerbitzuak emanez, eta premiei aurre eginez, Administrazioak berak premia aurrikusi baino lehenagotik ere. Hain zuzen ere, borondatezko lanaren ondorioz sortu ziren mugimendu sindikala, profesionalen talde asko, herritarren erakunde ugari eta hainbat auzo nahiz erlijio erakunde.

Behin onarturik aginte publikoek badutela erantzukizunik giza duintasunarentzako oinarritzko eskubideez benetan baliatzeko bermeari dagokionez, bai eta aukera berdintasuna eta berdintasun soziala eragozten dituzten oztopoak kentzeari dagokienez ere, boluntarioen lanak ez du izan behar, aurretik aipatutako xedeekin zerikusia duten zerbitzu publikoetan gertatzen diren hutsuneak ordezteko edo betetzeko.

(2) Ekainaren 25eko 17/1988 Boluntarioei buruzko Legea.

Boluntarioek, euskal administrazio publikoei dagokienez, lagundu egin behar dute, berrikuntzak sartuz eta beste sozietate eragileekin batera lan eginez, sozietatea aldatzea helburu duten politika publikoak diseinatzeko, garatzen eta burutzen, beti ere lehentasuna emanez pobrezia eta desberdintasunen kontra borrokatzeari eta zuzentasun eta berdintasun handiagoko sozietatea eraikitzeari.

Argi utzi nahi dugu hori. Izan ere, badirudi gaur egun zalantzan jartzen direla oraindik hasi berria dugun gure Ongizate Estatuaren zenbait lorpen, eta arrisku bat dago: borondatezko ekimen soziala ekintza profesionalaren ordezkotzat jotzeko arriskua eta, ondorioz, sozietatearen premiei aurre egiteko zerbitzu publikoak sortu barik uzteko arriskua.

Lege hori egitearen arrazoia honakoa da: alde batetik, erakundeei buruzko zenbait alderdi Elkarrean Legean araututa badaude ere, ez dagoela boluntarioen lana bera arautzeko legeria berezirik; bestetik, legearen bidez boluntarioen ekimena babestu nahi da.

Hori guztia bermatzeak eta boluntarioen eta kide diren erakundeen arteko harremanak eta erakunde horien eta Administrazioaren arteko harremanak bermatzeak lagundu egiten du boluntarioen eta erakundeen askatasuna areagotzen eta gehiegikeriak saihesten.

Baina lege horren ekarpen nagusia hau da: Euskal Administrazioak boluntario lana sustatzeko hartzen duen konpromisoa, aldi berean herritar guztiek sozietatea eraikitzen jarduteko duten eskubidea azpimarratuz.

Legeak zati hauek ditu: hiru xedapen gehigarri, aldi baterako xedapen bat eta azken xedapen bi.

I. tituluan araututako xedapen orokorretan, legearen helburua eta aplikazio eremua zein diren eta boluntario lana kontzeptua zer den zehazten da; horrela, boluntario lana pertsona fisikoek aurrera eramaten duten interes orokorreko ekimen multzoa litzateke, beti ere zehazten diren baldintzetan egiten direnak; baldintza horietatik kanpo dauden ekimenak eta lege horren arabera boluntarioaren lanaren barrukoak ez liratekeenak ere zehazten dira. Horretaz gain, interes orokorreko joko diren ekimenak eta boluntariotzako ekimenak bideratzeko oinarriak zehazten dira.

II. tituluan Boluntarioaren Estatutua garatzen da kapitulu bitan banatzen den azalpenen: lehenengoan, boluntarioei buruzkoan, boluntario kontzeptua azaltzen da eta horren eskubideak eta betebeharrak ezartzen dira. Bigarrenean, erakundeei eta erakundeen eta boluntarioen arteko harremanei buruzkoan, erakundeek zein baldintza bete behar dituzten zehazten da, eta, lehenengo kapituluarekin bat etorritik, erakunde horien eskubideak eta betebeharrak arautzen dira.

Boluntariotzako erakundeak deiturikoak sortzea ere aurrizatu da, eta aurrekoak ez bezala, horiek edukiko duten espezifikotasuna dela eta, agian herri onurakotzat joak izango dira.

III. tituluak, boluntarioak dituzten erakundeen eta Administrazioaren arteko harremanak arautzen dituenak, Eusko Jaurlaritzak bete beharreko funtzioak ezartzen ditu, gizarte ongizate gaietarako eskumena duen sailaren bidez beteko dituenak. Sail horren menpe egongo da, era berean, Boluntariotzako Erakundearen Errolda Orokorra, eta bertan izena eman ahal izango dute boluntarioak dituzten erakundeek, programak edo egitasmoak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egiten dituztenean. Bestalde, III. tituluan administrazio publikoen eta erakundeen arteko harremanen oinarriak ezartzen dira, hala nola elkarren arteko laguntza, osagarritasuna eta parte-hartzea.

IV. tituluan, euskal administrazio publikoek boluntarioen lana sustatzeko eta errazteko bultzatuko dituzten ekintzak ezartzen dira, beti ere euren eskumenak eta aurrekontuek horretarako aukera ematen duten neurrian.

Azkenik, V. tituluan, boluntarioen partaidetzari buruzkoan, Boluntarioen Euskal Kontseilua sortu eta horren kideak eta eginkizunak zein izango diren arautzen da. Behar boluntarioaren inguruan batzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko organoa izango da kontseilua, eta gizarte ongizate arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo zaio.

Xedapen gehigarrietan, ostera, honakoa ezartzen da: batetik, erakundeek eskatzen badute, boluntarioak erakundeetan sartzea Justizia, Ekonomia Lan eta Gizarte Segurantzza Sailek ezarritako hitzarmen edo konpromiso eredu normalizatu baten bidez formalizatu ahal izango dela. Bestalde, epe bat ezarriko da, nahikoa izango dena Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrak eta Boluntarioen Euskal Kontseiluak beren funtzionamendu araudiak egin ditzaten.

Azkenik, aldi baterako xedapenean urtebeteko epea ezartzen da, lege hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, legea indarrean jartzen denean boluntarioak dituzten erakundeak legean ezarritakoari egoki dakizkion.

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Legearen helburua eta esparrua

2. artikulua. Lan boluntarioaren kontzeptua

1. Lege horren ondorioetarako, lan boluntarioa pertsona fisikoek aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da; ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.
- b) Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoa lan, funtzionariotza edo merkataritza harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebeharr juridikoa ere.
- c) Irabazi asmorik ez duten erakunde bidez eta programa edo egitasmo zehatzen arabera eginak izatea.
- d) Ordainsaririk gabeak izatea.
- e) Ordaindutako zerbitzu profesionalak ezela ere ez ordezkatzeko.

2. Legearen ondorioetarako ez dira lan boluntarioak izango erakundeetatik kanpo une jakin batean edo noizean behin familia kontuengatik, adiskidetasunagatik on egiteagatik edo auzoko bizikidetasun onak bultzatuta egindako borondatezko ekintzak.

3. Ordezko zerbitzu sozial gisa egindakoa ere ez da borondatezko ekintzatzat joko.

3. artikulua. Interes orokorreko ekimenak

Aurreko artikuluan ezarritakoa argitzeko, interes orokorrekotzat jotzen diren ekimenak honakoak dira: sozietatearen edo pertsonaren onerako lan egiteko konpromisoa dutenak, esparrua edozein dela ere: sozietatea, komunitatea, hiria, kultura, garapena, ingurumenaren babesa edo antzekoa.

4. artikulua. Jarduteko oinarriak

Hainbat esparrutako boluntariotzako ekimenek balore hauek izango dituzte oinarrian: elkartasuna, partaidetza, doakotasuna, autonomia aginte publikoen aurrean, bereizkeriarik eza, aniztasuna, integrazioa, prebentzioa, sozietatearen sentsibilizazioa eta, oro har, sozietate de-

mokratiko, moderno eta parte-hartzaile, zuzen eta berdintasunezko batean elkarbizitza errazten duten baloreak.

II. TITULUA: BOLUNTARIOAREN ESTATUTUA. I. KAPITULUA: BOLUNTARIOEZ

5. artikulua. Boluntario kontzeptua

1. Boluntarioa lege honetan aipatutako ekintzak egiteko konpromisoa askatasun osoz hartzen duen pertsona fisikoa da; norbait boluntariotzat jotzeko betetzen dituen ekintzek 2. artikuluan ezarritako baldintzak bete behar izango dituzte.

2. Behar boluntarioak, boluntarioaren eta erakundearen artean harremanak izatea eskatzen du. Harreman horiek hainbat eskubide eta obligazio sortzen ditu elkarrekiko, eta horiek, edo horien alderdirik nagusienak, lege honetako 8.4 a) artikuluan aipatutako barne estatu-tuak arautuko ditu.

3. Boluntario izatea eta erakundeko bazkide izatea bateragarria izango da. Erakunde batean profesional jarduten dutenek edo erakunde horrekin laneko, merkataritzako edo beste edonolako harreman ordainsaridunak dituztenek ezin izango dituzte, ezelan ere, lan horiek berberak boluntario egin.

6. artikulua. Boluntarioaren eskubideak

Boluntarioaren eskubideak dira:

- a) Sartzen den erakundean aktiboki parte-hartzea, erakundeari buruz jaso beharreko informazioa jasoz (batez ere haren xedeei, egiturari eta funtzionamenduari buruzkoa), erakundean parte-hartze organoak sortzea eta organo horietako kide izatea.
- b) Esku hartzen dueneko programa edo egitasmoak diseinatu, egin, burutu eta ebaluatzen laguntza ematea; horretaz gain, erakundeko boluntario den aldetik, berari ere badagozkion gaietan iritzia emateko eskubidea izango du boluntarioak.
- c) Boluntarioak bere lanak eskatzen dituen laguntza teknikoa, heziketa eta giza laguntza jasotzea eta bere izaerari eta ahalmenei hobekien egokitzen zaizkion lanetara bideratzea.
- d) Aseguratuta egotea, boluntario lan egitean bitartekoren bati kalterik gertatuko balitzaio; asegurua araudian ezarritako baldintzetan eta araudiak ezarritako kapitalaren bidez egingo da.
- e) Boluntarioak bere lana betetzeko eralgitako dirua berreskuratzea, baldin eta erakundea eta boluntarioaren artea hitzartutako baldintzetan horrela ezarrita badago, eta, beti ere, hitzarmenean jarritako mugen barruan.
- f) Ekintzak boluntarioaren bizilekutik ahalik eta hurbilen egitea, programek eta egitasmoek horretarako aukera ematen duten neurrian.
- g) Bazterkeriarik gabe eta zuzentasunez tratatua izatea, boluntarioaren askatasuna, intimitatea eta sinismenak errespetatuz.
- h) Lana segurtasun eta higiene baldintza egokietan egitea, lanaren ezaugarriek eskatzen dutenaren arabera.
- i) Sozietareari emandako laguntzak merezi duen errespetua eta errekonozimendua lortzea.

- j) Aurrez jakinarazita, boluntario izateari askatasunez uztea.
- k) Lege honetatik eta boluntarioei buruzko gainerako antolamendu juridikotik etorritako beste guztiak.

7. artikulua. Boluntarioaren betebeharrak

Hauek dira boluntarioaren betebeharrak:

- a) Sartuta dauden erakundeari laguntza ematea, bere ahalmen eta borondatearen heinean, parte hartuz eta erakundearekin batera lan eginez.
- b) Erakundearekiko hartutako konpromisoak betetzea, erakundearen araubidea eta helburuak errespetatuz.
- c) Berari egokitutako lanak arduraz egitea eta erakundeko arduradunek ezarritako jarraibideei segitzea.
- d) Erakundeak aurrikusitako heziketa ekintzetan eta lana behar bezala egiteko premiazko ekimenetan parte-hartzea.
- e) Boluntario lan egitean jasotako edo jakindako informazioa isilpean gordetzea.
- f) Lagundu nahi dituzten pertsonen eta pertsona taldeen eskubideak errespetatzea.
- g) Boluntario agiria eta erakundearen bereizgarria egoki erabiltzea.
- h) Boluntarioaren esku uzten diren baliabide materialak jagotea.
- i) Oro har, boluntario lana lege honetako 4. artikuluan ezarritako oinarriak betez egitea.
- j) Lege honetatik eta boluntarioei buruzko gainerako antolamendu juridikotik etorritako beste guztiak.
- k) Onartzen diren segurtasun eta higieneko neurriak betetzea.

II. KAPITULUA: ERAKUNDEEZ ETA HORIEN HARREMANEZ BOLUNTARIOEKIN

8. artikulua. Erakundeak

1. Boluntarioak dituzten erakundeak, edozein lege ereduri dagozkiola ere, baldintza hauek bete behar izango dituzte: legearen arabera osatuak izatea, nortasun juridiko propioa edukitzea, irabazi asmorik ez izatea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen barruan fundazio eta elkartei dagokien erregistroan behar bezala erregistratuta egotea eta interes orokorreko ekintzen barruan programak edo egitasmoak garatzea (lege honetako 3. artikuluan zehaztuak).
2. Boluntariotzako erakunde izendapena erakunde hauek hartuko dute: aurreko baldintzak betetzeaz gain kide gehienak boluntarioak dituztelarik, egiten dituzten programa edo egitasmo gehienak batik bat boluntarioen bidez egiten dituzten erakundeak.
3. Boluntarioak erakundearen sartzeko bidea idatziz jasoko den hitzarmen edo konpromisoa izango da. Bertan erakundearen eta boluntarioaren arteko harremana altruista izango dela eta batak bestearekiko dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren zehaztuko da; horretaz gain, eginkizunak, ekintzak, harremanen iraupena, harreman hori desegiteko arrazoiak

eta erakundeak eta boluntarioek finkatu nahi dituzten beste hainbat puntu zehaztuko dira, legeak dioena betetzen dela ziurtatzeko.

4. Erakundeek honakoak egin behar izango dituzte:

- a) Erakundearen barnean boluntarioaren estatutua egin behar izango dute, eta bertan ezarri, gutienez, erakundearen onartzeko eta ez onartzeko irizpideak zein boluntarioen eskubide eta betebeharrak.
- b) Behar dena antolatu, boluntarioak bai erakundearen eta bai parte hartuko duen programa edo egitasmoetan bere laguntza emango duela eta behar duen informazioa jasoko duela bermatzeko.
- c) Egin beharreko lanak egokiak diren bitartekoak eta laguntza eman boluntarioei.
- d) Boluntarioei lanak ondo egiteko beharrezkoa den heziketa eman.
- e) Boluntarioentzako aseguru poliza sinatu; horren bidez, boluntarioak bere lana egitekoan bitartekoren bati kalterik eginez gero aseguruak ordainduko lituzke kalteak, beti ere araudian ezartzen diren baldintzetan eta araudiak ezartzen duen kapitalaren bidez.
- f) Boluntariotzan egiten duen berariazko lanari dagozkion segurtasun eta higiene baldintzak bermatu.
- g) Boluntarioari berak egindako lanak egiaztatzen dizkion agiri bat egin.
- h) Boluntario berri bat erakundearen sartzean egiten den hitzarmenean ezarritakoa bete.
- i) Erakundearen sartzen direnen eta erakundeko kide izateari uzten dioten erregistroa egin.
- j) Boluntario lan egitean eralgitako diru kopurua itzuli, baldin eta erakundea eta boluntarioaren artean hitzartutako baldintzetan horrela ezarrita badago, eta, beti ere, hitzarmenean jarritako mugen barruan.
- k) Boluntarioari egiaztatgiri bat eman bere lanerako gaitu eta identifikatuko duena.

5. Erakundearen eskubideak dira:

- a) Egin beharreko lanaren arabera aukeratzea boluntarioak.
- b) Erakundeek egiten duten borondatezko lanaren inguruan beharrezko informazioa eta orientabidea eskatzea Administrazioari eta eskatutako hori jasotzea.
- c) Borondatezko lana sustatzeko ekintzetan aurrikusten diren neurrietara batzea.

Ariketak:

- Taldeka paratuta, egin lege hori aztertzei itaun sorta. Gero jokatu denon artean taldeka, aldi bakoitzeko galdera bat eginez beste talde bati, eta haren galderari erantzunez. Jokoaren arauak zeuek asmatu behar izan behar dira. Ondo erantzundako galdera bakoitzak saria izan behar du, eta txarto erantzundakoa, ostera, zigorra.
- Lehenago ikusitako legeak aztertu ostean, ondoriozta ezazu zein diren lege batek izaten dituen parteak.
- Ikusten duzu Giza Eskubideen eta beste legeen arteko loturarik ala? Esan zerk lotzen dituen guztiak.

Gaur eguneko egoera 6

AURKIBIDEA

6. GAUR EGUNEKO EGOERA	89
6.1. Gaur eguneko egoera: elkarrizketa Ane Etxebarria eta Ainhoa Subinas-ekin.....	91
6.2. Bibliografia	93

6.1. GAUR EGUNeko EGOERA: ELKARRIZKETA ANE ETXEBARRIA ETA AINHOA SUBINAS-EKIN

Noiz eta zelan hasi zineten boluntario lan egiten?

Ainhoa Subinas: Hamazortzi edo hemeretzi urterekin hasi nintzen gizarteak marjinatu egiten dituen pertsonekin lanean Bizitegi izena daukan bazterketa sozialaren kontrako elkartean. Gero kooperante joan nintzen Nikaraguara eta, itzuli nintzenean, Pragan zegoen batzarraren kontrako mugimenduak hasita zeuden eta Hemen eta Munduan taldean sartu nintzen. Hau guztia egoeraren salaketa egin behar dela uste dudalako egin dut.

Nik bereizi egiten ditut boluntario eta militante paperak; nahiz eta ondo azaltzen ez dakidan, nire ustetan boluntario lana Bizitegi elkartean egiten dut, zerbitzu eta laguntza batzuk eskainiz, eta militante papera, ostera, Hemen eta Munduan edo kanpo zorra kitatzeko mugimenduetan betetzen dut, nire ideien eta kontzientziaren alde borrokatzen naizenean.

Ane Etxebarria: Bat nator boluntarioaren eta militantearen artean egin duzun bereizte horrekin. Ni ere hamazortzi urterekin hasi nintzen boluntario lanetan, unibertsitatean nengoela; nire ideiak direla eta, Mugarik Gabe-n sartu nintzen ezaguna zelako. Gero, Ameriketara egon naiz Eusko Jaurlaritzak kooperante gazteentzat egindako programa batean. Kanpo zorra kitatzeko sarean militante ere banaiz.

Zer da Mugarik Gabe? Zertaz arduratzen da?

A.E.: Garapena lortzeko Gobernu Kanpoko Erakunde bat da (ONGD), elkarte forma juridikoa duena. Duela 15 urte sortu zen Bilbon, 500 bat kide ditu eta Hego Amerikan egiten du lan. Duen helburu nagusia emakumeak “enpoderatzea” da, hau da, andreei baliabideak ematea aurrera egin dezaten. Horretarako egitasmoak burutzen dira eta gobernuak edo Europar Batasunak onartzen badituzte, martxan ipintzen dira Ameriketara.

Zelan hartzen dute estatu desberdinek zuen lana?

A.E.: Bada, bereizi beharra dago. Estatu “emailei”, hots, boluntarioak eta egitasmoa ipintzen dutenei, ondo etortzen zaie, publizitate ona da; baina “hartzailei” beti ez zaie komeni, euren politiken salaketa edo delako, eta intrusismoa leporatzen digute sarri.

Zelan ikusten duzue gaur egun boluntarioen egoera?

A.E.: Nik uste dut boluntarioen kopurua jaisten ari dela edo, gutienez, euren perfila aldatzen dagoela. Orain elkartera hurrerazten direnak ez dira luzaro gelditzen; tarte txiki baterako datoz. Boluntarioak ondo tratatzen ez direlakoan nago. Hau guztia GKEak operatiboak bihurtu direlako da. Adibidez, hurbiltzen zaizun boluntarioa guztiz gai da kartel bat egiteko, baina, eraginkortasuna kontuan hartu eta gero, profesional bati ematen zaio lan hori, eta horrek boluntarioa etsipenera bultzatzen du.

Hitz egin dezagun Hemen eta Munduan- en gainean: noiz sortu zen, zertarako...

A.S.: Duela urte eta erdi guti gora behera sortu zen. Definizio bat ematekotan, neuk esango nuke justizia globala eskatzen duen herri ekimena dela, globalizazio neoliberalaren kontra dagoen mugimendu sozialaren barruan.

Ez al da plataforma bat? Ala sare bati ematen zaion izena?

A.S.: Ez, herri ekimena da, definizioak ez ditut guztiz argi baina...

A.E.: Sarea osotzen dutenak eskuarki elkarrekin diharduten taldeak dira, antzekotasunak dituztenak. Plataforma, oster, helburu zehatz bat lortzeko sortzen da, eta biziki talde desberdinak batzen ditu, elkarrekin harremanak edukitzen ez dituztenak, Sahararen arazoa, kasu.

Ainhoa, lehen esan duzu Hemen eta Munduan globalizazio neoliberalaren kontra dagoen mugimendu sozialaren barruan kokatzen dela. Zer da globalizazioa?

A.S.: Azken urteotako fenomeno da, munduko parte guztien konektatzea dakarrena eta argi-argi ikusten dugu ezin dela atzera egin, geldieztina dela. Gertatzen dena da ez dela neutrala. Hau da, globalizazioa faktore biren baturatik dator: alde batetik, aurretik egon den sistema kapitalista, praktika eta politika suntsitzaileak eduki izan dituen, baina lehen askoz kalte murriztagoak ekartzen zituen. Gaur egun, ordea, beste faktore bat dago: teknologiaren aurrerapena, kapitalismoaren praktikei gehituta minutuetan suntsitu egin ditzakeena herrialde osoetako ekonomiak. Kapitalismoari ate guztiak zabaldu zaizkio.

Honen aurrean, garapen bidean dagoen herri batek ez du ezelako aukerarik. Joan zen astean Vandana Shiva andrea etorri zen, eta hark esaten zuen jendeak globalizazioa zer den jakin ez arren, bera jasaten ari dela.

Globalizazioak jokatu egiten du garapen bidean dauden herriekin, eta hondatu egiten ditu. Horren aurrean diskriminazio positibo motaren bat proposatzen dugu.

Zein da gaur eguneko egoera arazo horren aurrean?

A.S.: Bada, Hirugarren Munduan ikusten dugunez latz-latza da multinazionalak esaten baitiete nekazariei zer landatu eta guzti, baina gu ez gaude hobeto Lehen Munduan. Hemen ere multinazionalen jokabideek milaka langile kalean uzten dituzte. Gure estatu barruetan erabakitzeak aukera urria bagenuen, atera kontuak orain, arazoak estatuen gaintetik daudenean! Baina lehen, munduko boteretsuek goi mailako bilera bat egiten zutenean, egunkarietan aipamen txiki bat baino ez zen agertzen eta hori zen guztia. Orain deslegitimatuta daude, jendea kontra dute. Kontzientzia globala sortzen ari da.

A.E.: Munduko erabakiak hartzen dituztenek (Munduko Banketxea, FMI, OTAN, OMC eta Europar Batasuna) goi bilera egiten duten bakoitzean, foro alternatiboa egiten da bertan edo beste leku batean paraleloki (Porto Alegre-n egin den bezala) eta herrialde bakoitzean taillerak, eztabaidak eta ekintza informatiboak antolatzen dira. Politikariak presionatu egiten dira euren gai-zerrendetan puntu batzuk sar ditzaten.

Zer da lortu nahi dena?

A.S.: Politika ekonomikoak aldatzea, herrien arteko ezagupena eta kulturen errespetua gauzatzea mundu mailan.

Bilbo, 2001eko abenduaren 5a.

Ariketak:

- Aurki ezazu Vandana Shiva-ren gaineko informazioa egunkarietan edo interneten.
- Azal zer diren FMI, Munduko Banketxea, OTAN, OMC, Europar Batasuneko ministroen bilera, GATT eta G-8.
- Atera elkarrizketatik berri egin zaizkizun hiru hitz eta saia zaitetz zeure berbez definitzen.
- Bila ezazu globalizazioa eta pobrezia berriaren gaineko informazioa gero gero eztabaidatzeko.

6.2. BIBLIOGRAFIA

GALEANO, E.: *Patas arriba. La escuela del mundo al revés*: Siglo XXI Editores, 1998, 365 orr.

ZUBEROGOITIA, A.: *Globalizazioaren adarrak*: Alberdania argitaletxea, 2000, 102 orr.

ZZAA.: “Porto Alegre. Otro mundo es posible”, *El Viejo Topo* [Foro social mundial, Monereo, M. eta Riera, M.-ek argitaratuta]: 2000, 287 orr.